



Birgaitzeko RENOVE Plana

Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 Renove Planaren ebaluazioa
2017-2020 aldirako jarduera-gidalerroak

ATALA	ORRIALDEA
1) Testuingurua. Zergatik Birgaitzeko RENOVE Plana?	3
2) Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 RENOVE Planaren ezaugarriak	21
2.1) Helburuak eta jarduteko printzipioak	22
2.2) Programak	26
3.3) Inpaktua eta irismena	36
3) Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 RENOVE Planaren ebaluazioa	40
3.1) Helburu kuantitatiboen betetze-mailaren ebaluazioa	41
3.2) Helburu kualitatiboen betetze-mailaren ebaluazioa	57
4) 2017-2020 aldirako gidalerroak	62


1- Testuingurua. Zergatik Birgaitzeko RENOVE Plana?

Enpleguaren alorrean pisu garrantzitsua duen eta krisian zehar dezelerazio handia jasan duen sektore ekonomikoa

- EAEko BPGa %5ean murriztu zen 2008 eta 2013 urte bitartean nazioarteko krisi ekonomiko eta finantzarioaren ondorioz. BPGaren osaera sektorialari dagokionez, azken urteotan zerbitzuen sektorearen garrantziaren areagotzea egiaztatu da euskal ekonomia osoan, **eraikuntzaren sektorearen pisu erlatiboaren murrizketarekin batera, izan ere, azken sektore hau 2008an, EAEan, balio erantsi gordin (BEG) sektorialaren %10,2 izatetik %5,6 izatera pasatu zen 2014an, eta maila horretan mantendu zen 2015ean zehar.**
- Murrizketa hori bereziki nabarmena izan zen 2009 eta 2012 urte artean, %7tik gorako urteko tasa negatiboetara iritsiz. 2013tik aurrera, joera hori neurrikoagoa izaten hasi zen, esaterako, sektore honen ekoizpena %4,7 murriztu zen 2013an eta %3,2 2014an, baina 2015etik aurrera susperraldi arina bizitzen hasi zen.
- Errealitate hau zuzenean islatu da enpresa-ehunean. Enpresa-ehunak eraikuntzaren sektoreko establezimenduen %39,5eko murrizketa metatua jasan zuen (13.697 establezimendu) 2008-2015 aldian, hau da, 2008an kontabilizatutako 34.864 establezimenduen artean, **10 establezimendutatik 4 galdu ziren.** Era berean, **eraikuntzaren sektoreko enpleguaren %43,5 galdu da, 2008an 82.900 enplegu izatetik 2015ean 46.800 enplegu izatera, alegia.** Euskal enpleguarekiko balio erlatiboari dagokionez, sektore honen pisua nabarmen murriztu da, 2008an %8,4koa izatetik 2015ean %5,2koa izatera.


Benetako BPGaren eta eraikuntzaren sektorearen BEGaren bilakaera konparatua EAEko merkatu-prezioetan 2008-2015 aldirako (urtetik urterako aldaketa-tasa)

Iturria: Eustat eta Etxebizitzaren Euskal Behatokia.



Eraikuntzaren sektoreko enpleguaren pisu erlatiboaren bilakaera EAEan eta Estatuan 2008-2015 aldirako (%)

Iturria: Eustat-PRA, Etxebizitzaren Euskal Behatokia, INE-EPA.



- Jardueraren arabera EAEko establezimenduetan enplegatutako pertsona-kopuruaren bilakaera aztertuta, egiaztatu egiten da eraikuntzaren sektorea dela **krisian zehar enplegu erlatibo gehien galdu duen sektorea**.

- Enplegu-galera erlatiboa %47,9raino igo da, hau da, krisiak gogor eragindako beste sektore batzuetan izandako enplegu-galera baina askoz handiagoa, esaterako higiezin jarduerak (-%38,1) edo erauzketa-industriak (-%35,2).

2008 eta 2015 urte bitartean EAEko establezimenduetan enplegatutako pertsona-kopuruaren bilakaera jardueraren arabera (A21). Iturria: Eustat.

	2008	2015	2015-2008 aldea	2015-2008 % aldea
Jarduera guztiak	942.479	843.816	- 98.663	-%10,5
Zehaztu gabe	5.333	.		
A. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	.	13.414		
B. Erauzketa-industriak	571	370	- 201	-%35,2
C. Manufaktura-industria	214.896	162.562	- 52.334	-%24,4
D.Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura	2.274	2.173	- 101	-%4,4
E. Ur-hornidura; saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	8.122	6.079	- 2.043	-%25,2
F. Eraikuntza	100.149	52.211	- 47.938	-%47,9
G. Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuak eta motozikletak konpontzea	145.374	127.298	- 18.076	-%12,4
H. Garraioa eta biltegitratzea	46.973	40.530	- 6.443	-%13,7
I. Ostalaritza	48.665	51.809	3.144	%6,5
J.Informazioa eta komunikazioak	24.092	20.570	- 3.522	-%14,6
K. Finantza- eta aseguru-jarduerak	21.843	19.264	- 2.579	-%11,8
L. Higiezin jarduerak	7.359	4.552	- 2.807	-%38,1
M. Lanbide-, zientzia- eta teknika-jarduerak	56.882	58.488	1.606	%2,8
N. Administrazio-jarduerak eta laguntza-zerbitzuak	58.768	58.321	- 447	-%0,8
O. Administrazio publiko eta defentsa; derrigorrezko gizarte-segurantza	43.762	42.484	- 1.278	-%2,9
P. Hezkuntza	61.739	69.700	7.961	%12,9
Q. Osasun-arloko eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak	59.766	77.568	17.802	%29,8
R. Arte-, jolas- eta aisialdi-jarduerak	12.920	14.191	1.271	%9,8
S. Beste zerbitzu batzuk	22.991	22.232	- 759	-%3,3

Perspektiba ez ziurrekin

- EAErako epe laburrerako ekonomia-aurreikuspen globalek adierazten dute ekonomiaren susperraldi-erritmoa mantendu egingo dela, BPGaren 2,2 puntuko hazkunde proiektatuarekin, enpleguaren %1,6ko hazkundera ekarriko lukeena (lanaldi osoko pertsona baliokideak).
- Eraikuntzaren sektorearen kasuan, aurreikuspen horiek kontserbadoreagoak dira eta 2016rako 1,6 puntuko hazkundera aurreikusten dute.

Euskal ekonomiaren epe laburrerako ekonomia-aurreikuspenak (2016ko urria)

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Urte arteko aldaketa-tasa

	2016		2016	2017				2017
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	2,8	2,5	2,9	2,0	1,9	2,2	2,5	2,2
Azken kontsumoa	2,7	2,2	2,8	1,8	1,6	2,0	2,0	1,9
Kontsumo pribatua	2,9	2,5	3,0	1,9	1,8	2,1	2,1	2,0
Kontsumo publikoa	1,8	1,2	2,0	1,5	1,3	1,4	1,5	1,4
Kapital eraketa gordina	3,4	3,0	3,4	2,7	2,4	2,7	3,2	2,7
Barne eskar Urte arteko aldaketa-tasa	2,9	2,5	3,0	2,1	1,9	2,2	2,5	2,2
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,1	0,0	-0,1	-0,1	0,0	0,0	0,0	0,0
Lehen arloa	3,3	5,0	5,7	-0,4	1,1	-6,3	-7,1	-3,2
Industria eta energia	2,1	1,9	2,8	1,7	1,5	2,4	2,7	2,1
Eraikuntza	2,3	1,7	1,6	1,1	1,1	1,8	2,4	1,6
Zerbitzuak	3,0	2,6	3,0	2,2	2,1	2,4	2,7	2,4
Balio erantsi gordina	2,8	2,4	2,9	2,0	1,9	2,3	2,6	2,2
Ekoizkinen gaineko zergak	2,9	2,7	3,0	2,1	2,0	2,3	1,9	2,0
BPGaren deflatorea	0,6	1,0	0,5	1,0	1,1	1,2	1,3	1,2
Enplegua	1,8	1,7	1,8	1,5	1,4	1,7	1,7	1,6

Enplegu-sorrerarako aukeren estimazio kuantitatiboa (*) EAEko familia profesional guztietan 2015-2024 aldirako. Iturria: Lanbideren Kabinete Teknikoaren Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua.

- Epe ertainerako enplegu-sorrerarako aukeren aurreikuspenak baikorrakoak dira eraikuntzaren sektorearen kasuan. 2024ra bitartean, **eraikuntza eta obra zibilaren familiaren %7ko hedapena** kalkulatu da, hau da, **hedapenaren ondoriozko 2.920 enplegu-aukera berri 2015-2024 aldirako.**
- Halaber, aipagarria da sektore honetan enpleguaren ordezkapenak duen pisu adierazgarria. Horrek ekarriko luke **ordezkapenaren ondoriozko kalkulatuak 13.765 enplegu-aukera sorrera gehigarria, familia profesional honetan.**

(*) Barne hartzen ditu familia profesional guztietako hedapenaren ondoriozko enplegu-aukerak (hazkundera) eta baita belaunaldi-ordezkapenaren ondoriozko sortutako enplegu ere. Halaber, ereduak barne hartzen ditu aukeren aprobeixamenduak aurki litzakeen mugak, eskatutako eta eskaintako kualifikazioak bat ez etortzearen ondorioz, biztanleria aktiboaren hazkunde-mugaren ondorioz eta kanpoko talentua erakartzeko gaitasun efektiboaren ondorioz.

Lan-arloak	Enplegua 2014an	Enplegu-aukeren kalkulua					Enplegu kopurua handitzeko kalkulua		
		Kopurua handitzea	Ordezkatzea	Guztira	% guztira bertikala	201ko enpleguari dagokion %	Enplegua 2024an	Saldoa 2014-2024	Bilakaera % 2014-2024
Administrazioa eta Kudeaketa	81.277	-4.470	24.546	20.075	%6,6	%24,7	76.807	-4.470	-%5,5
Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak	14.648	1.099	4.434	5.533	%1,8	%37,8	15.746	1.099	%7,5
Nekazaritza	12.030	-601	6.785	6.183	%2,0	%51,4	11.428	-601	-%5,0
Arte grafikoak	6.874	419	336	755	%0,2	%11,0	7.293	419	%6,1
Arteak eta artisautza	16.206	-2.269	4.084	1.815	%0,6	%11,2	13.937	-2.269	-%14,0
Merkataritza eta marketinga	126.419	10.746	41.086	51.832	%17,2	%41,0	137.165	10.746	%8,5
Elektrizitatea eta elektronika	28.754	-1.006	8.382	7.375	%2,4	%25,6	27.748	-1.006	-%3,5
Energia eta ura	12.620	-696	3.679	2.983	%1,0	%23,6	11.925	-696	-%5,5
Eraikuntza eta obra zibila	41.713	2.920	13.765	16.685	%5,5	%40,0	44.633	2.920	%7,0
Fabrikazio mekanikoa	106.547	7.458	42.619	50.077	%16,6	%47,0	114.005	7.458	%7,0
Ostalaritza eta turismoa	55.117	5.096	18.719	23.816	%7,9	%43,2	60.214	5.096	%9,2
Erauzketa-industriak	18.221	-3.316	5.206	1.890	%0,6	%10,4	14.905	-3.316	-%18,2
Informatika eta komunikazioak	12.339	864	370	1.234	%0,4	%10,0	13.203	864	%7,0
Instalazioa eta mantentze-lanak	24.350	1.948	7.948	9.896	%3,3	%40,6	26.298	1.948	%8,0
Irudi pertsonala	9.833	344	2.773	3.117	%1,0	%31,7	10.177	344	%3,5
Irudia eta soinua	9.678	350	2.615	2.965	%1,0	%30,6	10.029	350	%3,6
Elikadura-industriak	10.538	11	2.982	2.993	%1,0	%28,4	10.549	11	%0,1
Egurra, altzaria eta kortxoak	10.023	-401	21	-380	-%0,1	-%3,8	9.622	-401	-%4,0
Itsaso- eta arrantza-jarduerak	7.219	-722	-120	-842	-%0,3	-%11,7	6.497	-722	-%10,0
Kimika	25.601	512	1.330	1.842	%0,6	%7,2	26.113	512	%2,0
Osasuna	51.271	3.589	18.457	22.046	%7,3	%43,0	54.860	3.589	%7,0
Seguratasuna eta ingurumena	51.472	1.338	14.515	15.853	%5,2	%30,8	52.811	1.338	%2,6
Zerbitzu soziokulturalak eta komunitatearentzako zerb.	116.039	11.604	32.491	44.095	%14,6	%38,0	127.643	11.604	%10,0
Hungintza, jantzigintza eta larrugintza	8.938	89	-1.698	-1.609	-%0,5	-%18,0	9.028	89	%1,0
Garrarioa eta ibilgailuen mantentze-lana	34.688	1.561	11.223	12.784	%4,2	%36,9	36.249	1.561	%4,5
Beira eta zeramika	5.583	-782	-149	-931	-%0,3	-%16,7	4.801	-782	-%14,0
GUZTIRA	898.000	35.686	266.398	302.084	%100,0	%33,6	933.686	35.686	%4,0

Baina zalantzarik gabe egitura-aldaketa garrantzitsuekin

- Etorkizunera begira, joerek diote enpleguaren bilakaera eskatutako kualifikazio-mailaren igoera batekin etorriko dela seguruenik.
- Honela, **kualifikazio handiko enpleguaren hazkunde orokorra aurreikusi da 2013-2025 aldirako, bereziki eraikuntzaren motako sektoreetan, non aurreikusitako hazkundea %80koa izango den.** Bestalde, kualifikazio txikiko enplegua %28 jaitsiko litzateke sektore horretan. Horrek esan nahi du tradizionalki, antolakuntzaren ikuspuntutik, oso dinamikoa izan ez den sektore honetako pertsonak eta enpresek birmoldaketa behar handi bati aurre egin beharko diotela.

Enpleguaren bilakaera Euskadin sektore eta kualifikazioen arabera 2013-2025 aldirako (Austriaren antzeko bitarteko bilakaera-egoera)

Iturria: "Euskadiko enpleguaren etorkizuna" txostena, Raquel Sedano eta Ibon Zugazti (Prospektiker). "Europar Batasuneko kualifikazioen panorama"-ren datuetan oinarritua.


(en %)

	Nivel alto de educación (2013-2025)	Nivel medio de educación (2013-2025)	Nivel bajo de educación (2013-2025)
Sector primario	28	-4	-49
Agricultura, silvicultura y pesca	37	5	-52
Minas y canteras; electricidad, gas, vapor y aire acondicionado; suministro de agua, actividades de saneamiento, gestión de residuos y descontaminación	7	-35	50
Construcción	80	-19	-28
Fabricación	19	-6	-14
Distribución y transporte (comercio al por mayor y al por menor; reparación de vehículos de motor y motocicletas; transporte y almacenamiento; y actividades de hostelería)	91	-4	9
Negocios y otros servicios	21	3	14
Información y comunicación	-17	28	9
Actividades financieras y de seguros	3	0	-43
Actividades inmobiliarias	26	9	10
Servicios profesionales, científicos y técnicos; actividades administrativas y servicios auxiliares y otras actividades de servicios	27	2	19
Administración Pública y defensa; Seguridad Social; Educación; Actividades sanitarias y de servicios sociales	23	0	-27
Actividades de los hogares como empleadores; actividades no diferenciadas de producción de bienes y servicios de hogares para uso propio	42	-11	-10

Enpleguaren dimentsioa bereziki garrantzitsua da birgaitzeen moduko azpisektoreen kasuan, enplegu-intentsitate handia baitute

- Eraikuntzaren sektorean jarduera ekonomikoak eta enpleguak duten lotura bereziki garrantzitsua da birgaitzeen azpisektorean, **mota honetako jardueretan dagoen eskulanaren intentsitate handia** dela eta.
- Birgaitze-obren kostuen banaketa motaren arabera aztertuta (langileak, materiala eta makineria), kalkulatu da **langileen batez besteko kostuak gutxienez ere guztizko kostuen %24-30 direla**, bai partikularrek bai erkidegoek burututako obrak kontuan hartuta (igogailuak jartzea, iturgintza, berogailu instalazio berriak edo hobekuntza energetikoa lortzeko edo elektrizitate-instalazioak hobetzeko burututako eraberritze-lanak), **isolamendu termiko eta akustikorako obretan eta fatxadetan birgaitzean %60-70 bitartekoak izan daitezkeelarik**.
- Azken urteotan Euskadiko Autonomia Erkidegoan eraikinak birgaitzeko egindako inbertsioaren eta inbertsio horrekin lotutako enpleguaren (lanpostu zuzenak urtean) datuak oinarri gisa hartuta, kalkulatu da **inbertitutako milioi euro bakoitzeko urtean lanaldi osoko 12,2 enplegu sortzen direla**.
- Bestalde, aipagarria da ere **inbertsio-baliabide pribatuak mobilizatzeko birgaitze-laguntzek duten eragin garrantzitsua**, bai emandako laguntzekin garatzen diren birgaitze-obren elkar-finantzatzearen ondorioz, eta baita laguntza jaso duten birgaitze-obren osagarri gisa burutzen diren bestelako obren ondorioz ere. Honela, kalkuluen arabera, emandako laguntzen milioi euro bakoitzeko 18,57ko eragin biderkatzailea lortzen da inbertsio pribatuaren gainean.


Kostuen banaketa birgaitze-obretan. Iturria: Euskadin etxebizitzak birgaitzeak jarduera ekonomikoaren sorreran, enpleguaren sorreran eta energiaren aurreztean dituen onuren inguruko txostena. 2010. Eusko Jaurlaritza.




Behar garrantzitsuak dituen etxebizitza-parkea

- Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitza-parkearen inguruan eskuragarri dauden azken datuen arabera (2011 Biztanleria eta Etxebizitzen Errolda – INE; eta 2014 Familia Etxebizitza Nagusien Ekipamenduei buruzko Estatistika – Eustat), esan daiteke etxebizitzen ezaugarri nagusietako bat dela **oso zaharrak** direla eta, ondorioz, eraikin askok ez dituzte betetzen irisgarritasun- eta bizigarritasun-baldintzak, ez eta energia-eraginkortasunaren aldetik eskatzen diren irizpideak ere.
- Esan liteke **EAEko 10 etxebizitza-eraikin bakoitzeko 4 eraikin 50 urte baino zaharragoak direla**. Gainera, eraikin askok behar sozial garrantzitsuak dituzte irisgarritasun-arauak ez betetzearen ondorioz, eta portaera energetiko eskasa ageri dute, etxebizitzen gehiengoa eraiki zenean oraindik ez baitzegoen eraikinen eraikuntzarako energia-eraginkortasunaren eskakizunak barne hartzen zituen araudirik (lehenengo araudia 1980. urtekoa da).
- Bestalde, 2015eko Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Estatistikak adierazten du **EAEko familia-etxebizitzen %6,7k birgaitze-beharra duela, hau da, 58.000 etxebizitza gora**. Konparazio modura, honek dakar birgaitzearekin lotutako esku-hartze beharraren %35,6ko murrizketa, 2013. urtearekin alderatuta, beraz, 32.122 etxebizitza gutxiago. Hala ere, hurrengo orrialdean ageri den moduan, **birgaitze-beharrei aurre egiteko gaitasuna hobetu egin da, urte baterako, bi urterako eta lau urterako eskaera nabarmen hobetuz**.
- Murrizketa bereziki garrantzitsua izan da Araban (antzemandako birgaitze-beharraren %63,1eko murrizketa) eta lurralde hori da orain EAEan birgaitze-behar gutxien duena (etxebizitzen %5,1). Bizkaian, bestalde, beheranzko joera nabarmena ikusi da (%37,9), baina birgaitzea behar duten etxebizitza gehien dituen lurraldea da orotara (27.612), hau da, eraikitako etxebizitzen %6,1. Gipuzkoak izan du murrizketa txikiena eta lurralde horrek du birgaitze-beharra duten etxebizitzen portzentaje handiena (%8,4).


2015 EAEko etxebizitzen birgaitze-beharrak. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Estatistika (ENDV 2015).



- Aurreko orrialdean aipatu den moduan, **biztanleriak birgaitze-beharrei aurre egiteko gaitasunaren inguruko aurreikuspenak hobetu egin dira 2015ean**, baina oraindik ere badira biztanleriaren talde handiak birgaitzeak burutzeko laguntzak behar dituztenak.
- Honela, 2015ean birgaitzea behar duten etxebizitzaren %26,8k hurrengo urtean zehar burutzea aurreikusi dute, %58,8k hurrengo bi urteetan zehar eta %67,6k hurrengo lau urteetan zehar. Balio hauek 2013an erregistratutako eskari-aurreikuspenak baino baikorragoak dira (%18,9 urte batera, %37,7 bi urtera eta %50,2 lau urtera).



- Etxebizitzek behar duten birgaitze-motari dagokionez, beharren **%44k elementu pribatiboekin du lotura, hau da, etxebizitzaren barnealdearekin**. Beharren %31 elementu erkideei dagokie, hau da, eraikinen zonalde erkideak. Gainerako %25a etxebizitzaren barnealdeko eta baita zonalde erkideen birgaitzea behar duten kasuei dagokie.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Estatistika (ENDV 2015).

2015eko birgaitze-beharrak dituzten etxebizitzaren karakterizazioa

- Ondoren ageri da **2015ean birgaitze-beharrak zituzten etxebizitzaren profila** deskribapen-parametro garrantzitsuagoetan oinarrituta (azalera erabilgarria, antzinasuna, izaera libre edo babestua, edukitza-erregimena, etab.):
 - Birgaitze-beharrak dituzten etxebizitzaren batez besteko tamaina 85 m²-koa da, eta etxebizitza horien erdiaren azalera erabilgarria 75 m²-tik gorakoa da.
 - Birgaitu beharreko etxebizitzaren %40 41 eta 60 urte bitartekoa da, eta **batez besteko antzinasun orokorra 45 urtekoa da.**
 - Etxebizitza **gehienak eraikin kolektiboak dira** eta etxebizitza librearen izaera dute.
 - **Etxebizitzaren %97k jabetzako edukitza du** eta erdia baino gehiago erabat ordainduta daude.


KARAKTERIZAZIO ELEMENTUAK		Etxebizitza-kopurua	Pisu erlatiboa guztizko pisuaren arabera
Azalera erabilgarria	60 m ² baino gutxiago	8.575	%15
	61-75 m ²	15.751	%27
	76-90 m ²	17.020	%29
	90 m ² baino gehiago	15.349	%26
	Ed/Ee	1.322	%2
Etxebizitzaren antzinasuna	60 urte baino gehiago	10.637	%18
	41-60 urte	22.969	%40
	26-40 urte	16.682	%29
	16-25 urte	4.107	%7
	6-15 urte	2.007	%3
Egoera	Ed/Ee	1.615	%3
	Erabilia	20.005	%34
Etxebizitza babestua	Berria	38.012	%66
	Bai	7.226	%12
Etxebizitza mota	Ez	50.791	%88
	Eraikin kolektiboa	53.138	%92
Edukitze-erregimena	Familia bakarreko eraikina	4.879	%8
	Guztiz ordaindutako jabetzan	33.187	%57
	Guztiz ordaindu gabeko jabetzan	15.825	%27
	Oinordetzan edo dohaintzan hart. jabetz.	7.163	%12
	Alokairuan	1.326	%2
	Beste egoera bat (doako lagapena e.a.)	517	%1

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Estatistika (ENDV 2015).

Eta kontzeptu-gako berri bat: Eraikinen Ikuskapen Teknikoa

- Aurreko orrialdeetan aurreratu den moduan, EAEko etxebizitza-parkearen ezaugarri nagusietako bat da oso zaharra dela, berez, **eraikinen %42 1961. urtea baino lehen eraiki zen eta, ondorioz, 50 urtetik gorako antzinatasuna dute eraikin horiek.**
- Proporzio hau eraikinen %45era igotzen da Bizkaian eta Gipuzkoan, baina %32ra murrizten da Arabako eraikinen kasuan.
- Eraikuntza, lurzorua eta hirigintza **erregulatzen duen araudia** bereziki garrantzitsua da testuinguru honetan, **legezko betebeharrak ezartzen baititu eraikinak behar bezala zaintzeko helburuarekin**, segurtasun-, osasungarritasun- eta irisgarritasun-baldintzak betetze aldera eta portaera energetiko egokia bermatzeko xedearekin.

Etxebizitza gisa erabiltzen diren eraikinen banaketa eraikuntza-urtearen arabera.
Iturria: INE, 2011ko Biztanleria eta Etxebizitzaren Errolda.



- Testuinguru horretan jaio zen **Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EIT)**, eraikinen jabeek, etxebizitzetan bizi diren pertsonen eta administrazioen **eraikinen egoera ezagutzeko ahalbidetzeko xedearekin**, eraikinen egoera ona eta segurtasuna bermatu ahal izateko. Aurrerago txosten tekniko batean islatzen den begizko azterketa baten bidez burutzen den ikuskapen honek eraikuntzaren kalte eta narriadura posible guztiak nabarmentzen ditu esku-hartze plan bat prestatzeko helburuarekin, beharrezkoa denean, eta baita eraikinaren bizitza erabilgarria areagotzea ahalbidetzen duen mantentze-eta zaintza-plan bat ere.
- Espezifikoki, **ekainaren 18ko 3/2015 Etxebizitzaren Legeak eta urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Lurzoruari eta Hiri Zaharberritzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena, xedatzen dute 50 urtetik gorako etxebizitza-eraikin guztiak izan behar dutela Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EIT) eta, orokorrean, urtebeteko epean aurkeztu beharko dela eraikinak 50 urte betetzen dituenetik aurrera.** Hala ere, eraikin zaharrenen eguneraketa errazte aldera, araudiak egutegi progresibo bat baimentzen du eta xedatzen du 2017ko ekainaren 27an 50 urte edo gehiago dituzten etxebizitza-eraikinek EITa aurkeztu ahalko dutela 2018ko ekainaren 28a baino lehen. **Betebehar hau ez betetzea hirigintzako arau-haustetat joko da, Legearen arabera.**
- Aipagarria da, halaber, **EITa ezinbesteko baldintza dela laguntza publikoak eskuratzeko eta, ondorioz, kontrol-tresna bilakatzen dela birgaitze-laguntzen erabilera zuzena bermatzeko.**

Ikuskapen horretan, eraikinaren eraikuntza-egoeraz gain, garapen jasangarrirako oso garrantzitsuak diren beste bi elementu aztertzen dira: irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna

- EITa burutzeko egituraren, fatxadaren, teilatuaren eta saneamendu- eta hornidura-sareen **begizko azterketa** egiten da, horien **eraikuntza-ezaugarriak, egoera eta eraikinari eragin diezaioketen patologia**k ezagutzeko xedearekin.
- Horrez gain, EITak alor honetako **beste bi elementu kritiko** hartzen ditu barne:

ENERGIA-ERAGINKORTASUNA

- **Energia-eraginkortasunaren ziurtagiria** burutzea: eraikinaren ingurutzailerearen eta bere instalazioen datuak jasotzea, eraikinaren energia-eraginkortasuna egiaztatzeko xedearekin.

IRISGARRITASUNA

- **Irisgarritasunari buruzko datuen** bilketa: irisgarritasun unibertsalaren oinarriko baldintzak betetzea eta desgaitasunen bat duten pertsonak ez bereiztea eraikinerantz sartu eta eraikina erabiltzeko orduan, indarrean dagoen araudiaren arabera, eraikinean baldintza horiek betetzeko arrazoizko doikuntzak egin daitezkeen ala ez adieraziz.

- Burututako ikuskapenen emaitzak **txosten tekniko batean eta irizpen batean** jasotzen dira, biak eskumena duten langile tekniko fakultatiboek eginak, eta dagokion udalaren aurrean aurkeztu behar dira.

erregistroa
EIT
ERAIKINEN IKUSKARITZA
TEKNIKOA



=

Eraikinaren eraikuntza-egoeraren eta bere patologia posibleen inguruko irizpen-txostena

+

Energia-eraginkortasuna egiaztatzea

+

Eraikinaren irisgarritasun-baldintzen inguruko txostena

✓ *Eraikinaren egoera ona eta segurtasuna bermatzea.*

✓ *Eraikinaren zaintza eta mantentzea sustatzea.*

✓ *Energia-eraginkortasunaren irisgarritasun unibertsala bultzatzea.*

✓ *Higiezinaren eta eraikuntzaren sektoreko jarduera ekonomikoa sustatzea.*

✓ *Birgaitze-laguntzei ematen zaien erabileraren kontrolean laguntzea.*

- EITaren ondorioz, derrigorrezkoa izango da, 2017ko abendutik aurrera, eraikin guztiek **irisgarritasun unibertsalaren oinarriko baldintzak betetzen dituztela bermatzea** (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena). Era berean, **eraikinaren energia-eraginkortasuna egiaztatzen duten mailak bete** beharko dira.

Guzti hori Gobernuaren estrategia, plan eta programen arabera

- EAEan birgaitzeen alorrean abian jarritako politika, ekintza eta neurri guztiak bat datoz Eusko Jaurlaritzak, testuinguru horretan, diseinatutako estrategia, plan eta programekin.
- Beherago aipatu dira **birgaitzearekin eta hirien berroneratzearekin lotura zuzenagoa duten estrategiak, planak eta programak**:

PLANAK

2013-2016 ETXEBIZITZA PLAN ZUZENTZAILEA



- 2013-2016 Etxebizitza Bideratzeko Planaren helburua izan zen etxebizitza duinte, egoki eta irisgarria izateko eskubidea bermatzea, eraikitako etxebizitzaren gaineko jardueri lehentasuna emanez eta hirien birgaitzea, berritzea eta berroneratzea bultzatuz. Plan honen sei ardatz estrategikoen artean dago **birgaitze integraleko eredu berri bat bultzatzea** (4. ardatza) eta ardatz horrek ezartzen ditu irisgarritasun unibertsala, eraikinen zaintza eta mantentzea, birgaitzeko kudeaketa-eredu orokor berri bat, birgaitzeekin lotutako enplegua sustatzeko formula berriak eta etxebizitzaren kalitatea sustatzeko 5 jarduera-ildo.
- Aipatutako **jarduera-ildoen arabera garatu dira sektore honen garapenerako gidalerroak edo palankak azken 4 urteotan, aldi berean epe ertainera eta luzera garapenarekin jarraitzeko oinarriak ezarriz.**

2014-2016 ENPLEGU PLANA



- 2014-2016 Enplegu Plana sortu zen zeuden enpleguak indartzeko ekimen publiko egokiak sustatzeko, enpresa- eta ekoizpen-ehunak lanpostuak sortzeko eta biztanleria aktiboaren enplegarritasuna areagotzeko tresna gisa.
- Plana **6 Programa Eragiletan egituratu zen eta programa horietako oso bat birgaitzearen inguruan osatu zen: 6. Programa Eragilea. Birgaitzeko RENOVE Plana**. Programa honek hainbat ekintza zehatz ditu barne birgaitzearen sektorean enplegua sortzeko, etxebizitzaren irisgarritasun- eta eraginkortasun-baldintzak hobetzen diren aldi berean, birgaitze-politika adimentsu, jasangarri eta integratzaile bati esker.
- Ondorioz, **hirien birgaitze- eta berroneratze-ekintzak Plan honi zuzenki lotuta egon dira, eta oraindik ere badaude, Planak duen enplegu-sorrera gaitasun handiagatik** eta sektore honen jarduera modu jasangarrian garatzeko eta mantentzeko ematen duen laguntzagatik.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO PLANA 2020



EUSKADI 2020 ZTBP
Una estrategia de especialización inteligente
Research & Innovation Smart Specialisation Strategy - RIS3

- Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planaren (ZTBP 2020) xedea da **ongizatea, hazkunde ekonomiko jasagarria eta enplegua hobetzea espezializazio adimentsuan oinarritutako ikerketa- eta berrikuntza-politika baten bidez** eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Sistemaren eraginkortasuna hobetuz. ZTB Pak, beraz, jarduera-sektore desberdinak uztartzen ditu planteamendu integratzaile, berritzaile eta estrategiko bat erabiliz.
- RIS 3 estrategia Plan honen ardatz nagusietako bat dela kontuan hartuta, **hirien birgaitze- eta berroneratze-jardueren sustapena, ikuspuntu berritzaile batetik eta eraikuntza jasagarriarekin eta irisgarritasunaren hobekuntzarekin lotuta**, ekarpen zuzena da Planean definitutako helburuen eta ildoen garapenerako.

ESTRATEGIAK

EUSKADI RIS 3 ESTRATEGIA

RIS 3 EUSKADI
Euskadiko Espezializazio
Adimentsuari buruzko
estrategia-lehentasanak



- RIS3 Estrategiak ezartzen ditu Euskadiko espezializazio adimentsuaren lehentasanak eta lehentasuneko alor gisa jotzen ditu fabrikazio aurreratua, energia eta biozientziak (giza osasuna lehentasun nagusizat hartuz), bai eta lurraldearekin lotutako eta heldutasun-maila desberdineko hainbat hobi ere. Halaber, helburuetara iristeko gaitasunak eta teknologiak ezartzen ditu eta hainbat aukera-alor.
- Estrategiaren ikuspuntutik, material eta teknologia berrietan oinarritutako planteamendu berritzaile batetik burututako birgaitzea sustatzeak **zuzenki laguntzen du erronka ekonomiko eta sozialak gainditzeko, hirigintzarekin eta mugikortasunarekin lotutako aukera-alorretan, klima-aldaketaren eta jasagarritasunaren esparruan, erronka energetikoan eta osasunaren eta zahartzearen alorrean.**

ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2020



- Duela gutxi onartu den Enpleguaren Euskal Estrategia 2020 diseinatzean aintzat hartu da enplegu-politikekin lotura duten eragile publiko eta pribatuen jarduerari eman nahi zaion orientazioa, modu koordinatuan eta enplegua ulertuz garapen pertsonalerako, gizarte-kohesiorako, garapen ekonomikorako eta aberastasuna sortzeko elementu nagusi gisa, gizarte lehiakor eta aurreratu bat lortu ahal izateko.
- Aipatzen dituen erronken artean nabarmentzekoa da aukeren sorreraren erronka, hau da, enplegu-sorrera erabat aprobetxatzen jakitea espezializazio adimentsuaren aldeko eta tokiko esparruarekin lotura gehiago duten baina enplegu-sorrera intentsiboa duten sorguneen aldeko apustua eginez. Erronka hau alor honetako 11 gidalerrotan antolatzen da.
- Testuinguru honetan, eta **sektoreko jarduerekin lotutako eskulan zuzenaren intentsitate handia kontuan hartuz, birgaitzearen sustapena bultzatzeak onura zuzena dakar enpleguaren sorrerarako.**

EUSKADIKO ENERGIA ESTRATEGIA 2030



EUSKADIKO ENERGIA ESTRATEGIA
2030



- 2030 Euskadiko Energia Estrategiak 2030. urtera bitartean euskal energia-politikak jarraitu beharreko gidalerroak ezartzen ditu. Estrategia hau **euskal eredu sozioekonomikoaren bilakaera progresiboan oinarritzen da, batez ere industriari, eraikinei eta garraioari dagokienez, eredu jasangarriago eta energia-kontsumo txikiagoko baterantz**, kontsumo hori energia berriztagarrietan oinarrituz eta energia elektrikoa energia-bektore nagusi gisa hartuz. Gidalerro hauek bat datoz 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategiaren helburuekin.
- Estrategian definitutako jarduera-ildoen artean aipatzen da **eraikinetan eta etxebizitzetan energia-kontsumoa are gehiago murrizteko eta energia berriztagarrien erabilera areagotzeko beharra**. Ikuspuntu honetatik, **birgaitze jasangarria sustatzeak** onura zuzena dakar eraikinen energia-eraginkortasunaren hobekuntzaren aldetik, irtenbide berritzaileei eta energia-aurrezterantz bideratutako hirigintza-kultura berri baten bultzadari esker.

IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN ESTRATEGIA (garatze-bidean)



IRISGARRITASUN UNIBERTSALA EUSKADIN
Guztiek aukera-berdintasuna lortzeko estrategia



- **Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) berrikuste-prozesuak**, EAEan 2015ean hasi zena, barne hartzen du irisgarritasuna bere zeharkako alderdien artean, aukera-berdintasunean eta etxebizitzaren, hiri-ingurunearen, landa-ingurunearen, ekipamendu eta zuzkiduren, garraio eta mugikortasunaren eta produktu eta zerbitzuen esparruetan guztiontzat pentsatutako diseinu-estrategia batean oinarritutako **irisgarritasun unibertsalaren** ikuspuntutik.
- Aldi berean, 2020 Euskadiko Irisgarritasun Unibertsalaren Estrategian lanean ari gara, **produktuen, espazioen, eraikinen eta zerbitzuen pixkanakako egokitzea planteatuz irisgarritasun unibertsalaren baldintzetara moldatu** ahal izateko, teknologia berriak eta berrikuntza sustatzearen eta herritarrak sensibilizatzearen bitartez. Testuinguru honetan **hirien birgaitzea eta berroneratzea bereziki garrantzitsuak dira egokitze horren elementu bultzatzaile** gisa.

PROGRAMAK ETA BESTELAKOAK

- Irisgarritasun Unibertsalaren Estrategia aipatzean aurreratu den moduan, **2015ean hasi zen Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) berrikuste-prozesuak irisgarritasun unibertsalarekin eta energia-eraginkortasunarekin erlazio zuzena duten hainbat alderdi jorratu ditu**, horiek baitira EAEko etxebizitza-parkeak dituen gabezia nagusiak. Alde batetik, irisgarritasun unibertsala zeharkako alderdien artean sartu da. Bestalde, LAGen berrikusterako hainbat ekarpen jaso dira etxebizitzaren esparruan energiari dagokionez (11. Kapitulua). Etxebizitzetako eta hiri-inguruneetako energia-eraginkortasuna areagotzea helburu duten hirien birgaitze- eta berritze-jarduerei lehentasuna ematea proposatu da.
- Modu osagarrian aipa litezke **hainbat programa zehatz, ikuspuntu desberdinetatik hirien birgaitze- eta berroneratze-jardueren garapenean laguntzen dutenak**, gizarte-kohesioaren eta ingurumen-jasangarritasunaren esparru barruan.
- Modu espezifikoan eta europar esparruarekin lotuta aurkitzen dugu **Euskadiko 2014-2020 aldirako EGEF Programa Eragilea**. Bertan, Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) elkar-finantzatzutako jardueren inguruko esku-hartze estrategia eta helburu tematikoak ezartzen dira, 2014-2020 programazio-aldi berrirako. Zehazki, nabarmentzekoa da Europako funtsen integrazioa, **CO₂ isurketen murrizketa inplizitua daramaten hazkunde jasangarrirako proiektuak** direla medio.
- Bestalde, **Eraikal Programaren** xedeen artean daude kalitatearen kudeaketa-sistemen ezarpena eta hobekuntza sustatzea, jasangarritasuna bultzatzea eta berrikuntzarako laguntza ematea Euskadiko etxebizitza-eraikuntzaren sektoreko enpresetan. Bereziki ohargarria da kalitatekoak eta ingurumenarekin begirunetsuak diren lan-prozesu seguruak jarraituz burututako etxebizitzak herritarrei eskaintzeko aukera ematen duten eta hiri-habitat jasangarri bat sendotzen laguntzen duten **proiektu berritzaileak garatzeko eraikuntzaren eta birgaitzeen sektoreari ematen zaion laguntza**.
- Halaber, **jasangarritasunari buruzko Dekretuak** (178/2015 Dekretua, irailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzkoa) sektore publikoak energia kontsumitzeko duen modua aldatzeko beharrezko oinarriak ezarri ditu. Europako eskakizunak oinarri hartuta, Dekretuak birmoldaketa energetikoa bultzatzen du Eusko Jaurlaritzaren sailen eta departamentuen mendekoak diren eraikin, instalazio eta flota guztietan, bai eta bere erakunde edo sozietate publikoen mendekoetan ere, eta helburu gisa ezartzen du energia-kontsumoa %25era arte murriztea 2025 urterako. Gauzak horrela, hirien birgaitze eta berroneratze jarduerak sustatzen badira, neurri berritzaile eta jasangarrien bidez, helburu hori lortzea errazagoa izango da, aldi berean sektorearen garapen ekonomikoa eta enplegu-sorrera ere bultzatuz.

Eta, jakina, Europa 2020 Estrategiaren ildo bera jarraituz

Europa 2020 Estrategiak hazkunde "adimentsua" lortu nahi du, hezkuntzan, ikerketan eta berrikuntzan inbertsio eraginkorrakoak eginez; hazkunde "jasangarria", karbono gutxi kontsumitzen duen ekonomia bat bultzatuz; eta "integratzailea", enplegu-sorrera eta pobrezia-aren murrizketa lehentasun bilakatuz.

Bestela esanda, Europa 2020 Estrategiak planteatzen duena da helburu hirukoitza: hazkunde ekonomikoa eta enplegu-sorrera ahalbidetzeko, gizarte-koherentsia hobetzeko eta ingurumenaren jasangarritasuna zaintzeko.

Ikuspuntu honetatik, **etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzeak onura zuzena dakar Europa 2020 Estrategiaren helburuetara iristeko**, ondorengo faktoreen arabera:

- **Enplegua sortzeko gaitasun** handia, eskulan zuzen intentsiboa duen sektorea baita, enpleguaren sorreran eragiten duten zeharkako efektu eta efektu induzituek gain.
- **Bizi-kalitatearen** hobekuntza, batez ere bazterrean geratzeko arrisku handiena duten zonalde eta kolektiboetan.
- **Garapen jasangarrian** laguntzea, eraikin eta etxebizitzaren portaera energetikoa hobetuz, CO₂ isurketak murriztuz eta energia-kontsumoan aurrezteko ahalbidetuz.




2020ko Europako norabide integratuak

- 1. norabidea:** Finantza publikoen kalitatea eta bideragarritasuna
- 2. norabidea:** Desoreka makroekonomikoei heltzea
- 3. norabidea:** Europaren eremuko desorekak murriztea
- 4. norabidea:** Ikerketarako, garapenerako eta berrikuntzarako (I+G+B), "ezagutzaren triangelua" indartzea eta ekonomia digitalaren ahalmena liberatzea
- 5. norabidea:** Baliabideen erabilera eraginkorra hobetzea eta berotegi-efektuko gasak murriztea
- 6. norabidea:** Enpresa-ingurua eta kontsumitzaileena hobetzea eta industria-oinarria modernizatzea eta garatzea, barne-merkatuak erabat funtzionatzea bermatzeko
- 7. norabidea:** Emakumeek eta gizonek lan-merkatuan duten parte-hartzea handitzea, egiturazko langabezia murriztea eta kalitatezko enplegua sustatzea
- 8. norabidea:** Biztanleria aktibo kualifikatu bat lortzea, lan-merkatuaren beharrei erantzun gona, eta etengabeko ikaskuntza sustatzea
- 9. norabidea:** Hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen emaitzen kalitatea hobetzea maila guztietan, eta goi-mailako irakaskuntzan eta baliokidetasun partaidetza areagotzea
- 10. norabidea:** Inklusio soziala bultzatzea eta pobrezia-aren aurka borrokatzea

Etxebizitza-politika bat non birgaitzeko laguntzen pisu erlatiboa haziz doan

- Europa-mailan, etxebizitzaren birgaitzea, azken urteotan, %60tik gorako pisura iritsi da etxebizitzaren eraikuntzaren negozio-bolumenarekiko, etxebizitza berrien eraikuntzaren kalterako. Estatuaren kasuan, azken urteotan, eraikuntzaren pisu erlatiboaren hazkunde bat ikusi da, baina birgaitzea oraindik ere sustatu beharko litzateke, Europan duen pisura iritsi arte.
- EAEaren kasu zehatzean, motaren arabera obra handietarako lizentzia kopuruaren bilakaeraren azterketak adierazten du eraikuntza berriko lizentziak nabarmen jaitsi zirela, 2012. urtetik aurrera egonkortuz, eta 2014 eta 2015 urteetan hazkunde arin bat izan zutela, baina betiere krisiaren aurretiko balioetatik urrun. Bestalde, birgaitzearekin lotutako obra handietarako lizentziek murrizketa garrantzitsua izan zuten 2009an, baina ondorengo urteetan hobera egin zuten eta 2014 eta 2015ean krisiaren aurretiko balioen gainetik geratu ziren.

Obra handietarako lizentzien bilakaera motaren arabera EAEan (lizentzia kopurua). (Iturria: Etxebizitzaren Euskal Behatokia).



Beraz, enpleguan pisu garrantzitsua duen sektore ekonomikoa da hau, krisian zehar dezelerazio handia jasan duena, bereziki birgaitzei dagokienez; hazkunde eta enplegu-sorrera aurreikuspen kontserbadoreekin; eta eskatutako enpleguaren kualifikazio-mailaren goranzko joerarekin. Guzti hori antzinate handiko etxebizitza-parke baten testuinguruan, birgaitze-behar handiekin eta eraikinen zaintza eta segurtasuna bermatzeko ezarri diren araudi-eskakizun berriekin (EIT).

Abiapuntu hauek aintzat hartuta, ondoriozta liteke **aztertutako faktoreek indartu egiten dutela Herri Administrazioak merkatua suspertzeko egindako ahalegina eta hirien birgaitzea eta berronartzea sustatzen jarraitzeko beharra, programa publikoen bidez, Eusko Jaurlaritzaren bestelako plan eta programek abian jarritako lan-ildoei onura ateraz eta pixkanaka Europako mailara hurbiltzen saiatuz.**

2- Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 Renove Planaren ezaugarriak

2.1- Helburu estrategikoak eta jarduteko printzipioak

HELBURUEN GARAPENA

1) ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEA

Birgaitzea da enplegu-intentsitate gehien duten jardueretako bat. Hain da horrela, ezen pareko inbertsio batekin, garraio-azpiegiturek sortzen duten enplegua baino 5 aldiz gehiago sortzen duen. Gainera, zeharkako enplegu eta enplegu induzitu sorrera handia ere eragiten du.

Bestalde, birgaitzea da hurbileko enplegu-hobia, non mikroenpresek eta enpresa txikiek pisu handia duten. Honek esan nahi du etxebizitzaren birgaitzerako ematen diren pizgarriek hurbileko efektua izango dutela, batez ere enpresengan eta sortutako lanpostuei dagokienez.

Guzti horregatik, hiri-ingurunean duen inpaktuaz gain, Plan honen helburu nagusia zen enplegu-sorrera sustatzea.

2) BIZI KALITATEA ETA GIZARTE KOHESIOA HOBETZEA

Birgaitzeak bizi-kalitatea nabarmen areagotzen du, bereziki irisgarritasuna hobetzen duten esku-hartzeen kasuan, oso onuragarriak baitira adineko eta mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat. Esku-hartze hauek arreta sozio-sanitarioaren eta mendekotasunaren alorreko beharrak asko murrizten dituzte eta, bestalde, eraikin horietan bizi diren adinekoen autonomia areagotzen dute, bai adineko pertsonak eta baita mugikortasun arazoak dituztenak ere luzaroago beren ingurunean geratu ahal izatea lortuz.

Gainera, hiri-zonalde narriatu eta gizartearen ikuspuntutik kalteberak diren eremuetan burututako esku-hartzeek gizarte-kohesioa sustatzen dute, hartara *ghetto* moduko egoerak ekidinez eta zonalde horiek dagokien herri edo hirian integratuz.

3) ERAIKUNTZAREN MERKATUA DINAMIZATZEA

Laguntza publikoek sustapen-efektu biderkatzaile handia izaten dute birgaitze-eskariari dagokionez, beraz, espero zen Plana bizigarri garrantzitsua izatea goera latza bizi zuen sektore honentzat.

4) ENERGIA KONTSUMOA ETA CO₂ ISURKETAK MURRIZTEA ETA EUROPA 2020 ESTRATEGIAREN HELBURUEKIN BAT EGITEA

Birgaitutako eraikin eta etxebizitzek beren portaera energetikoa hobetzen dute, energia-aurrezte handiak eta CO₂ isurketen murrizketak ahalbidetuz.

Estatu-mailan, birgaitzea bultzatzeak esan nahi du Europarekin ditugun konpromisoak betetzerantz aurrerapausoak ematea, hau da, CO₂ isurketen %20ko murrizketa, energia-kontsumoaren %20ko murrizketa eta energia berriztagarrien erabilerearen %20ko areagotzea 2020 urterako (20/20/20 2020rako), berotegi-gasen isurketan %20an murriztuz, 1990. urtearekin alderatuta, 2020. urtera arte.

5) BIRGAITZEAREN KONTZEPTU BERRITZAILE BAT EZARTZEA ESKU HARTZE INTEGRALEN GARAPENA OINARRI HARTUTA

Hirien Birgaitze eta Berroneratze politika berriak barne zuen integraltasunaren kontzeptu berritzaile bat. Kontzeptu horrek, esku-hartze teknikoaz gain, gizarteratzeko laguntza ere kontuan hartzen du, etxebizitza-politikaren ardatz nagusia pertsonak baitira.

Halaber, birgaitze integralari lehentasuna eman zitzaien, IRISGARRITASUNAREN + ENERGIA ERAGINKORTASUNAREN + SEGURTASUNAREN alor hirukoitzeko hobekuntza erkideak dakartzaten esku-hartzeak bereziki sustatuz.

6) HIRIGINTZA KULTURA BERRI BAT BULTZATZEA

Plan honen xedeetako bat zen hirigintza-kulturan aldaketa bat eragitea, espazio finkatuen birgaitzearen eta berroneratzearen aldeko apustua eginez, portaera energetiko eraginkor batekin eta gizarte-integrazioarekiko errespetutik, eraikuntza berriko eraikinen hiri-hazkunde eta -hedapenaren aurrean.

Kultura berri hau pixkanaka zabaltzea aurreikusi zen, etxebizitza-politiketan parte hartzen duten eragile guztietara iritsi arte: administrazioak, enpresa sustatzaileak, eraikuntza-enpresak, jabetza higiezinaren agenteak, erabiltzaileak, auzotarren elkarteak, finken administrazio-enpresak, etab.

Jarduteko printzipioak

RENOVE Birgaitze Programa ondorengo jarduteko printzipioen inguruan egituratu da:

- 1 Administrazioaren funtzio-sustatzailea** jarduera sozial eta ekonomikoki onuragarria suspertzeko.
- 2 Erakundeen arteko lankidetz**a pertsona eta auzo narriatuenen bizi-baldintzak hobetzeko.
- 3 Lankidetz**a publiko-pribatua, administrazioak eta agente pribatuak uztartuz hirien birgaitzea eta berroneratzea bultzatzeko eta Euskadin jasangarritasunaren aldeko apustua indartzeko, ekonomia suspertuz, enplegu-sorrera ahalbidetuz eta eraikuntzaren sektoreko enpresa txiki eta ertainen jarduera sustatuz.
- 4 Jasangarritasuna**, ingurumena zaindu eta hobetzeko beharra aintzat hartuz, eraikinen energia-eraginkortasuna dela medio.
- 5 Berdintasuna**, behar gehien eta baliabide ekonomiko gutxien dituzten pertsoneri eta auzoei lehentasuna emanaz.
- 6 Efizientzia eta eraginkortasuna** hiri-birgaitzeen politikaren eta programen kudeaketa-irizpide gisa.

2.2.- Programak

Programak

Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 RENOVE Plana **5 programaren** bitartez gauzatu da:

- 1** Partikularrentzako eta jabekideen erkidegoentzako laguntza-programa, eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko.
- 2** Udalentsako eta tokiko erakunde txikientzako irisgarritasun arloko laguntzen programa.
- 3** Birgaitze integratuko eremuetan (BIE) edo egoitza eremu narriatuetan ondare hiritartua edo eraikia birgaitzeko diru-laguntzen programa.
- 4** Etxebizitza eta eraikinetako birgaikuntza eraginkorreko laguntzen programa, ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko.
- 5** Hiria zaharberritzeko diru-laguntzen programa.

1 Partikularrentzako eta jabekideen erkidegoentzako laguntza-programa, eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko.

HELBURUA

Partikularren eta bizilagunen erkidegoen birgaitze-lanak laguntzea, bizigarritasuna hobetzeko, desgaitasunak dituzten pertsonentzako sarbideak egokitzeko eta energia-kontsumoa murrizteko.

LAGUNDUTAKO JARDUERAK

- Obrak 1 eta 2: Eraikina egitura eta eraikuntza aldetik egokitzea eta etxebizitzaren eta merkataritza-lokalen bizigarritasun-baldintzak egokitzea.
- Obrak 3: Etxebizitzak eta sarbideak desgaitasun fisikoak dituzten pertsonentzako indarrean den araudira egokitzea.
- Obrak 4: Eraikuntzaren eta etxebizitzaren akabera orokorra eraikuntza onaren irizpideetara egokitzea.
- Inguratzaile termikoan lanak egitea, energia aurrezteko, Eraikuntza Kode Teknikoaren Energia Aurrezteko Oinarrizko Agiriaren 3. atalean eskatzen diren mugako balioetara iritsi ahal izateko.
- Eraikinak 50 urtetik gora dituenen: EITaren irizpenaren arabera urtebeteko epean edo epe laburrago batean burutu beharreko obrak.

ONURADUNAK

- Partikularrak.
- Jabekideen erkidegoak.

ESKAINITAKO LAGUNTZAK

- Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak.
- Mailegu kualifikatuak.
- Zerga-arinketa.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA

1.1.- LAGUNTZAK PARTIKULARRENTZAT

1.1.1- Mailegu kualifikatuak

- Onuradunak: urtean 33.000 €-tik beherako diru-sarrerak dituztenak.
- Gehienezko zenbatekoa: babes daitekeen aurrekontu guztia.
- Amortizazio-epea: 5 eta 15 urte artean, gehienez ere 3 urteko gabealdiarekin.
- Interes-tasa: gutxienekoa (Euriborra + %0,75), gehienezkoa (Euriborra + %1,75).

1.1.2.- Diru-laguntzak

- Onuradunak: urtean 21.000 €-tik beherako diru-sarrerak dituztenak.
- Diru-laguntzaren ehunekoa: %5 eta %50 artean, onuradunen diru-sarreraren arabera, obra-motaren arabera eta obrak birgaitze integraturako zonaldeetan egotearen edo ez egotearen arabera.
- Gehienezko zenbatekoa: birgaitze isolaturako 4. motako obretan etxebizitza bakoitzeko 1.100 €-en eta birgaitze integraturako 3. motako obretan etxebizitza bakoitzeko 5.940 €-en artean.

1.2- LAGUNTZAK JABEKIDEEN ERKIDEGOENTZAT

1.2.1 - 1, 2 eta 3 motako obrak burutzeko diru-laguntzak:

- Babes daitekeen aurrekontuaren %5, gehienez ere erkidego bakoitzeko 2.000 €-rekin.
- BIEetan, %10, eta gehienez ere 3.000 €/erkidegoa.

1.2.2- EITaren txosten teknikoa prestatzeko diru-laguntza: %100, gehienez ere 1.000 €.

1.3- INGURATZAILE TERMIKOAN LANAK EGITEKO DIRU LAGUNTZA ENERGIA AURREZTEKO

- m² bakoitzeko hobekuntza-ehunekoa %0 eta %50 artean: babes daitekeen aurrekontuaren %30. Gehienezko muga: 30.000 €.
- m² bakoitzeko hobekuntza-ehunekoa %50etik gorakoa: babes daitekeen aurrekontuaren %50. Gehienezko muga: 45.000 €.

2 Udalenzako eta tokiko erakunde txikientzako irisgarritasun arloko laguntzen programa.

HELBURUA

Pertsona guztiak hiri-inguruan eta espazio publikoetan berdin eta ahalik eta modu askeenean moldatu ahal izatea lortzea; hori horrela, instalazioak Irisgarritasunaren Europako Kontzeptuan zehaztutako diseinu unibertsalaren arabera egokituko dira, pertsonen beharretara egokitzeko.

LAGUNDUTAKO JARDUERAK

- Egungo hiri-inguruneak, gune publikoak, eraikinak, garraiobideak eta informazio-sistemak 1997ko abenduaren 4ko 20/1997 Legean eta horren garapen-arauetan aurreikusitako irisgarritasun-baldintzetara modu progresiboan egokitzea xede duten irisgarritasun-planak egitea eta planak eguneratzea.
- Udalen eta tokiko erakunde txikien irisgarritasun-planetan jasotako hobekuntza-lanak egitea.
- Igogailuak eta plataforma jasotzaileak erostea eta instalatzea, hiri-inguruan, eraikinetan eta espazio publikoetan irisgarritasuna bermatzeko.
- Xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuen hobekuntza-lanak egitea.

ONURADUNAK

- Udalak.
- Tokiko erakundeak.
- Xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuak.

ESKAINITAKO LAGUNTZAK

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA

- Orokorra: Gehienez ere eskatutako irisgarritasun-aurrekontuaren %50 edo %75 irisgarritasun-planen edo hauen eguneraketen kasuetan, erakunde bakoitzeko gehienezko 300.000€-ko mugarekin.
- Narriatu gisa aintzatetsi diren zonaldeetan edo birgaitze integratuko eremuetan dauden obren kasuan, muga hori areagotu egingo da eskatutako irisgarritasun-aurrekontuaren %60ra iritsi arte.

Birgaitze integratuko eremuetan (BIE) edo egoitza eremu narriatuetan ondare hiritartua edo eraikia birgaitzeko diru-laguntzen programa.

HELBURUA

Hirigintza-gabeziak eta arazoak dituzten eremuetan tokiko erakundeei birgaitze-lanak burutzeko laguntzak ematea.

LAGUNDUTAKO JARDUERAK

- Birgaitze integratuko eremuetan eta bizitegi-eremu narriatuetan urbanizatutako eta eraikitako ondarea birgaitzeko planak egiteko lanak.
- Plan horietatik eratorritako obrak burutzeko laguntzak.

ONURADUNAK

- Udalak.
- Hiria Birgaitzeko Hirigintza-Sozietateak.

ESKAINITAKO LAGUNTZAK

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Proiektuak prestatzeko lanen kostuaren %80, %100era iristeko aukerarekin proiektuak genero-ikuspegia kontuan hartzen badu eta jasotze topografikoen kasuan.

Etxebizitza eta eraikinetako birgaikuntza eraginkorreko laguntzen programa, ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko.

HELBURUA

Multzokatuta egonik blokeak edo etxadiak osatzen dituzten eraikinetako irisgarritasun, suteen kontrako segurtasun eta energia-eraginkortasun baldintzak hobetzea, gutxienez horren alde bat barne hartuta; hain zuzen ere, nagusiki bizitzeko erabiltzen dena.

LAGUNDUTAKO JARDUERAK

Honako hauei dagokien proiektuak idaztea eta lanak gauzatzea:

- Honakoak barne dituzten esku-hartze integralak:
 - Eraikinen inguratzailean egin beharreko lanak eraikinen eskari termikoa murrizteko eta ekoizpen termikorako instalazioetan burutu beharreko lanak energia-kontsumoa murrizteko. Eraberritzearen ondoren, gutxienez C energia-ziurtagiria lortu beharko da, apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuak zehaztutako prozeduraren arabera.
 - Eraikinen irisgarritasuna hobetzea, bide publikotik etxebizitza bakoitzera sarbidea izango dela bermatuz, koskadun desnibelak saihesten ibili beharrik gabe.
 - Suteen aurkako segurtasun-baldintzak hobetzea. Suteak detektatzeko, alarma jotzeko eta itzaltzeko ekipamendu eta instalazio orokor egokiak izan beharko ditu eraikinak edo eraikin-multzoak; horrez gain, larrialdiko argiztapena izan beharko du, eraikina hustu behar izanez gero argiztapena bermatzeko eta irteerako seinaleak eta dauden babes-ekipamendu eta -baliabideak ikusi ahal izateko.
- Eraikitako perimetroa handitzeko jarduketak, bizigarritasun-baldintzak hobetzeko, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzkoak, IV. eranskinean ezarritakoarekin bat etorritik.
- Barneko konfort termikoaren eta berokuntzaren energia-kontsumoaren energia-monitorizazioa, birgaitutako eraikinean edo blokean dauden etxebizitzaren lagin esanguratsu bat erabiliz.

ONURADUNAK

1980a baino lehen eraiki ziren eta 2002ko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren arabera hirigintza- eta egitura-egokitzapena duten eta multzokatuta egonik blokeak edo etxadiak osatzen dituzten eraikinen jabekideen erkidegoak.

ESKAINITAKO LAGUNTZAK

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA

▪ Diru-laguntzak:

- Txostenak, ziurtagiriak eta proiektuak idazteko oinarritzko laguntza: Dokumentuen idazkuntza-ordainsarien kostu garbiaren (zergak salbu) %60 (gehienez ere %80 birgaitze integratuko eremuetan edo bizitegi-eremu narriatuetan burututako lanetan) eta haren gehieneko muga esku-hartze proiektuaren aplikazio-eremuaren barnean hartutako etxebizitzaren guztizko kopurua 800 euroekin biderkatuz zehaztuko da.
- Obrak egikaritzeko oinarritzko laguntza (esku-hartze proposamenak biltzen dituen jardunen arabera kalkulatu): Diruz lagundutako jardunen kontrata-urrekontuaren (zergak salbu) %50 emango da gehienez ere (gehienez ere %60 birgaitze integratuko eremuetan edo bizitegi-eremu narriatuetan burututako lanetan).
- Energia-portaera hobetzeko oinarritzko laguntza: gehienez ere 8.200€/etxebizitza (9.840€/etxebizitza birgaitze integratuko eremuetan edo bizitegi-eremu narriatuetan burututako lanetan).
- Irisgarritasuna hobetzeko oinarritzko laguntza: gehienez ere 60.000 euro/igogailu instalazio kasuetan (72.000€ birgaitze integratuko eremuetan edo bizitegi-eremu narriatuetan burututako lanetan), gehienez ere 20.000 euro/igogailu egokitze kasuetan (24.000€ birgaitze integratuko eremuetan edo bizitegi-eremu narriatuetan burututako lanetan) eta gehienez ere 12.000 euro/igogailu zero kotarainoko irisgarritasuna gauzatzeko (14.400€ birgaitze integratuko eremuetan edo bizitegi-eremu narriatuetan burututako lanetan).
- Energia-monitorizaziorako oinarritzko laguntza: gehienez ere 140 euro etxebizitza bakoitzeko (168€ birgaitze integratuko eremuetan edo bizitegi-eremu narriatuetan burututako lanetan). Monitorizatuko diren etxebizitzaren gutxienezko kopurua –eskabidearen barnean hartutakoa– 20 etxebizitza edo gutxiagoko eskabideen %20 eta 20 etxebizitza baino gehiagoko eskabideen %15 izango da.
- Suteen aurkako segurtasunerako oinarritzko laguntza: gehienez ere 150 euro etxebizitza bakoitzeko (180€ birgaitze integratuko eremuetan edo bizitegi-eremu narriatuetan burututako lanetan).
- Oinarritzko laguntzen baturaren gehieneko muga: esku-hartze proiektuaren aplikazio-eremuaren barnean hartutako etxebizitzaren guztizko kopurua 15.000€-rekin biderkatuz zehaztuko da muga hori (18.000€-rekin birgaitze integratuko eremuetan edo bizitegi-eremu narriatuetan burututako lanetan).

5 Hiria zaharberritzeko diru-laguntzen programa.

HELBURUA

Hiria zaharberritzeko jarduerak berariaz babestea hirigintza- edo gizarte-arazo bereziak dituzten eremuetan.

LAGUNDUTAKO JARDUERAK

Hiri-zaharberritzearen alorrean 2013-2016 aldirako hasieran aurreikusitako jarduerak honako eremu hauei dagozkie:

- Txabarri-El Sol eremua, Sestao.
- Sarratu eremua, Basauri.
- Peñascal eremua (Iturrigorri-Gardeazabal), Bilbo.
- Mariaren Bihotza plazaren eremua, Bilbo.
- San Juan eremua, Santurtzi.
- Txomin-Enea eremua, Donostia.
- Mogel eremua (Ipurua), Eibar.
- Makatxena eremua, Arrasate.
- Santa Juliana, Abanto.
- San Joan erreka-Nerbioi ibaia, Laudio.
- San Jose auzoa, Amurrio.
- Osintxu auzoa, Bergara.

ONURADUNAK

- Udalak.
- Hiria Birgaitzeko Hirigintza-Sozietateak.

ESKAINITAKO LAGUNTZAK

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak.

2.3- Inpaktua eta irismena

Birgaitzeko aurreikusitako baliabide ekonomikoak

- Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 Renove Planak **guztira 81,5 milioi euroko laguntza-zenbatekoa** aurreikusi zuen 2013-2016 aldirako.
- Horrez gain, sektoreko pizgarri publikoek **beste 845,9 milioi euro mobilizatzea lortuko zutela** kalkulatu zen.
- Baliabideen mobilizazio gehigarri horrek ondorengo iturriak izango zituen jatorrian:
 - Diru-laguntza jasotzen zuten jardueren diruz ez lagundutako parteak.
 - Diru-laguntzarik gabeko bestelako hobekuntzetarako esku-hartzeak, diruz lagundutako jarduerekin batera egitekoak.
- Honela, guztira birgaitze-lanetan erabilitako **guztizko bolumena 927,4 milioi eurotan** kalkulatu zen.

2013-2016 aldirako aurreikusitako baliabide ekonomikoak (€)

JARDUERAK	Aurreikusitako laguntzen zenbatekoa (€)	Aurreikusitako guztizko bolumen ekonomikoa (€): laguntzak + inbertsio induzitua
Jarduerak etxebizitza bakanduetan	48.000.000	840.000.000
Jarduerak eraikinen birgaitze integralerako	17.500.000	35.000.000
Irisingarritasuna espazio eta ekipamendu publikoetan	6.800.000	34.000.000
Hirien berroneratzea	9.200.000	18.400.000
GUZTIRA	81.500.000	927.400.000

OHARRA: Laguntzak eta inbertsio induzitua kalkulatzeko denbora-irizpidea obrak egikaritzeko aurreikusitako urtea da.



Aurreikusitako irismena

- Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 Renove Planaren lagundutako jardueren irismenari dagokionez, **52.000 etxebizitzaren gaineko esku-hartzea kalkulatu zen.**

Jardueren aurreikusitako irismena 2013-2016 aldirako (€)

JARDUERAK	Lagundutako etxebizitza-kopurua
Jarduerak etxebizitza bakanduetan	50.000
Jarduerak eraikinen birgaitze integralerako	1.140
Irisgarritasuna espazio eta ekipamendu publikoetan	Ez da aplikagarria
Hirien berroneratzea	860
GUZTIRA	52.000



ENPLEGUA SORTZEA

- Kalkuluen arabera, Etxebizitzak Birgaitzeko Renove Planak urtebeteko lanaldi osoko **12.797 lanposturen sorreran lagundu behar zuen** 2013-2016 aldian zehar.




3- Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 RENOVE Planaren ebaluazioa

3.1- Helburu kualitatiboen betetze-mailaren ebaluazioa

2013-2016 aldirian zehar birgaitze-lanetarako benetan erabilitako baliabide ekonomikoak


- **2013-2016 aldirian zehar birgaitze-lanetarako emandako laguntzen benetako zenbatekoa 74,9 milioi eurokoa izan da**, eta horiek beste 1.077,4 milioi euro mobilizatu dituzte ekimen pribatuaren aldetik (inbertsio induzitua). Honek esan nahi du, birgaitze-lanetarako erabilitako **gutzizko baliabide ekonomikoaren bolumena 1,152,3 milioi eurokoa** izan dela (laguntzak + inbertsio induzitua).
- Planean, epe honen hasieran, egindako aurreikuspenak kontuan hartuta, **laguntzetarako aurreikusitako aurrekontu publikoaren %92 betearazi da**. Aldiz, babes daitezkeen aurrekontuak aurreikusitakoak baino handiagoak izan dira eta, ondorioz, **sortutako guztizko bolumen ekonomikoa %124koa izan da aurreikusitakoarekin alderatuta** (laguntzak + inbertsio induzitua).
- Gutxi gorabehera, **laguntzen guztizko inbertsioaren %70 energia-eraginkortasunerako erabili da**. CO₂ isurketak %30ean murriztu direla kalkulatu da, beraz, hasiera batean 10 Kg/CO₂/m² sortzen baziren urtean, birgaitzearen ondoren 3 Kg/CO₂/m² sortuko dira urtean. Bestalde, etxebizitza bakoitzeko beharrezko batez besteko inbertsioa 1980. urtea baino lehen eraikitako eraikinetan "C" energia-ziurtagiria lortzeko 15.000€-koa izan da.

2013-2016 aldirian zehar birgaitze-lanetarako erabilitako baliabide ekonomikoak. Aurreikuspenekin alderaketa (M€)



(Oharra: 2013, 2014 eta 2015eko zifrak baliabide ekonomikoaren datu errealei dagozkie, baina 2016koak aurreikusitako zifrak dira, txostena burutzeko momentuan ez baitzeuden oraindik behin betiko datuak).


- **Etxebizitza bakanduetan burututako jarduerak 2013-2016 aldian zehar emandako birgaitze-laguntza guztien %57 eraman dute (42,9 milioi euro) eta sortutako guztizko bolumen ekonomikoaren %93 (1.072 milioi euro). Eraikinen birgaitze integralerako jarduerak eta espazio eta ekipamendu publikoetan irisgarritasuna bermatzeko jarduerak laguntzen %20 eta %13 jaso dute, hurrenez hurren.**
- Gainerako aurrekontu publikoaren %10 hirien berroneratze-jardueretarako eta birgaitze integratuko eremuetan edo bizitegi-eremu narriatuetan burututako lanetan erabili da.



1. oharra: 2013, 2014 eta 2015eko zifrak baliabide ekonomikoen datu errealei dagozkie, baina 2016koak aurreikusitako zifrak dira, txostena burutzeko momentuan ez baitzeuden oraindik behin betiko datuak.

2. oharra: eraikinen birgaitze integralerako jardueren kasuan eta espazio eta ekipamendu publikoetan burututako jardueren kasuan, adierazitako zenbatekoa emandako laguntzena da.

- 2013-2016 aldian zehar emandako laguntzen bilakaera aztertuta, **joera orokor aldakor bat ikusten da programa bakoitzaren bilakaeraren ondorioz, baina punturik altuena 2015ean lortu zen 24,6 milioi euroko baliabide publikoen guztizko bolumen batekin.**
- Bestalde, sortutako guztizko bolumen ekonomikoaren joera orokorra arinki goranzkoa izan da 2015. urtera arte eta, aurreikuspenen arabera, 2016an hazkunde bat izango du, 2013ko zifren antzekoetara iritsiko dela kalkulatu baita.



1. oharra: 2013, 2014 eta 2015eko zifrak baliabide ekonomikoaren datu errealei dagozkie, baina 2016koak aurreikusitako zifrak dira, txostena burutzeko momentuan ez baitzeuden oraindik behin betiko datuak.

2. oharra: eraikinen birgaitze integralerako jardueren kasuan eta espazio eta ekipamendu publikoetan burututako jardueren kasuan, adierazitako zenbatekoa emandako laguntzena da.

2013-2016 aldian zehar egikaritutako laguntzen benetako zenbatekoaren eta sortutako bolumen ekonomikoaren xehetasunak, urtearen eta programaren arabera (€)

JARDUERAK	2013 (BENETAKOA)		2014 (BENETAKOA)		2015 (BENETAKOA)		2016 (AURREIKUSPENA)	
	Laguntzen zenbatekoa (€)	Sortutako guztizko bolumen ekonomikoa (€): laguntzak + inbertsio induzitua	Laguntzen zenbatekoa (€)	Sortutako guztizko bolumen ekonomikoa (€): laguntzak + inbertsio induzitua	Laguntzen zenbatekoa (€)	Sortutako guztizko bolumen ekonomikoa (€): laguntzak + inbertsio induzitua	Laguntzen zenbatekoa (€)	Sortutako guztizko bolumen ekonomikoa (€): laguntzak + inbertsio induzitua
Jarduerak etxebizitza bakanduetan	6.181.282	284.751.598	8.948.462	261.155.256	13.754.959	242.305.019	14.092.874	283.835.451
Jarduerak eraikinen birgaitze integralerako	5.440.256	10.880.051	0	0	5.099.601	10.199.202	4.193.290	10.541.271
Irisgarritasuna espazio eta ekipamendu publikoetan	1.363.673	10.400.696	2.500.000	5.923.752	2.999.958	8.799.870	2.999.958	8.799.870
Hirien berroneratzea	1.180.003	2.360.006	1.065.038	2.130.076	2.772.502	5.545.004	2.322.106	4.644.212
GUZTIRA	14.165.214	308.392.351	12.513.500	269.209.084	24.627.020	266.849.095	23.608.228	307.820.804

1. oharra: 2013, 2014 eta 2015eko zifrak baliabide ekonomikoen datu errealei dagozkie, baina 2016koak aurreikusitako zifrak dira, txostena burutzeko momentuan ez baitzeuden oraindik behin betiko datuak.

2. oharra: eraikinen birgaitze integralerako jardueren kasuan eta espazio eta ekipamendu publikoetan burututako jardueren kasuan, adierazitako zenbatekoa emandako laguntzena da.

2013-2016 aldiaren zehar garatutako jardueren benetako irismena

- Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 Renove Planean barne hartutako laguntza-ildoei esker gauzatutako jardueren ondorioz **esku-hartzeak gauzatu dira 37.658 etxebizitzatan**, 120 irisgarritasun-plan garatu dira espazio eta ekipamendu publikoetarako, 52 sozio-hirigintza proiektu edo azterlan prestatu dira 31 Udalen eskutik birgaitze integratuko eremuetan edo bizitegi-eremu nariatuetan eta hainbat hiritan berroneratze-jarduerak burutu dira hirigintzaren edo gizartearen alorrean arazo jakinak dituzten zonaldeetan.
- Irismen honek esan nahi du etxebizitzetan benetan garatutako esku-hartzeak aurreikusitakoen %72,4 izan direla (52.000 etxebizitza aurreikusi ziren).
- **Halaber**, aipagarriak dira 2013-2016 aldiaren zehar Planari esker lortutako ondorengo emaitzak:



- 35.376 etxebizitza bakandutan nolabaiteko birgaitze-obrak burutu dira, 10.459 eraikinetan.
- 1.686 etxebizitzatan birgaitze integralerako jarduerak burutu dira 88 ataritan, eraikin horien eraginkortasuna hobetuz eta energia-kontsumoa murriztuz. 1960 eta 1980 urte artean eraikitako eraikin hauen %75ek diru-laguntza jaso zuen.
- 8.280 etxebizitzak irisgarritasuna hobetu dute.
- 2.001 esku-hartze burutu dira eraikinen irisgarritasuna hobetzeko.
- 5.239 etxebizitzak atera diote onura igogailu baten instalazioari.
- 1.322 igogailu instalatu dira.
- 368 irisgarritasun-obra burutu dira Udal eta Tokiko Erakunde txikietan eta 69 hiri-igogailu publikotan.

2013-2016 aldiaren zehar burututako jardueren benetako inpaktua: enplegu-sorrera eta itzulkin fiskalak

ENPLEGUA SORTZEA

- 2013-2016 aldiaren zehar, Planaren bidez abian jarritako jardueren enpleguan izan duten benetako inpaktua **13.551 lanpostu baliokidekoa** izan da, lanaldi osoa eta urtebeteko lana kontuan hartuta, kalkuluen arabera. Zifra honek, aurreikusitako lanpostu-kopuruaren helburuarekin alderatuta, %106ko betetze-maila adierazten du, hau da, **enpleguan egon den benetako inpaktua Planaren aurreikusitakoa baino %6 handiagoa izan da** (12.797 lanpostu).

2013-2016 aldirako enplegu-sorreraren ondoriozko inpaktua, PROGRAMAREN eta OBRA MOTAREN arabera (urtebetean zehar lanaldi osoko langileen baliokidea)

JARDUERAK PROGRAMAREN ARABERA	ENPLEGU SORRERA (lanpostu baliokideak urtean, lanaldi osoarekin)				GUZTIRA 2013-2016
	2013	2014	2015	2016	
Jarduerak etxebizitza bakanduetan	3.474	3.185	2.955	462	13.076
Jarduerak eraikinen birgaitze integralerako	8	63	82	114	267
Irisgarritasuna espazio eta ekipamendu publikoetan	0	30	13	95	38
Hirien berroneratzea	7	6	29	28	70
GUZTIRA	3.489	3.284	3.079	3.699	13.551

JARDUERAK OBRA MOTAREN ARABERA	ENPLEGU SORRERA (lanpostu baliokideak urtean, lanaldi osoarekin)				GUZTIRA 2013-2016
	2013	2014	2015	2016	
Jarduerak etxebizitzetako elementu pribatiboetan	523	460	462	529	1.974
Eraikinen birgaitze integralerako jarduerak (egitura egokitzea, fatxadak, teilatuak, energia-eraginkortasuna hobetzea, etab.)	2.306	2.135	2.063	2.441	8.945
Eraikinen (igogailuak, atariak egokitzea) eta espazio eta ekipamendu publikoen irisgarritasuna	628	660	493	666	2.446
Hirien berroneratzea	31	30	62	63	186
GUZTIRA	3.489	3.284	3.079	3.699	13.551

Oharra: 2013, 2014 eta 2015eko zifrak sortutako enplegu errearen datuen estimazioari dagozkie, baina 2016koak aurreikusitako zifrak dira, txostena burutzeko momentuan ez baitzeuden oraindik behin betiko datuak.

ITZULKIN FISKALAK

- Itzulkin fiskalen ikuspuntutik, 2013-2016 aldian zehar Planaren esparruan garatutako birgaitze-jarduerentzat **161,31 milioi euroko guztizko itzulkin fiskala** kalkulatzen da, Balio Erantsiaren Zerga (BEZ), Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) eta Sozietateen gaineko Zerga kontuan hartuta.





- BEZaren itzulkin fiskala: 71,81 milioi euro.
- PFEZren itzulkin fiskala: 62,92 milioi euro.
- Sozietateen gaineko zergaren itzulkin fiskala: 26,58 milioi euro.


- Halaber, 2013-2016 aldian zehar Euskadiko Autonomia Erkidegoan lagundutako birgaitze-jardueren ondorioz **sortutako BPG induzitua 749,55 milioi eurokoa** izan dela kalkulatzen da.


Hirien berroneratze-jardueren benetako irismena

- Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 Renove Planaren esparruan hirien berroneratze-jardueretarako erabilitako baliabide ekonomikoen zenbatekoa **7,3 milioi eurokoa izan da eta hainbat berroneratze-jarduera sustatu dira hirigintzaren edo gizartearen alorreko arazo jakinak dituzten 12 zonaldeetan (6 Bizkaian, 4 Gipuzkoan eta 2 Araban), 596 etxebizitza onuradunekin.** Kasu gehienetan, lagundutako jarduerak hurrengo urteetan jarraituko duen berroneratzearen hasierako faserako balio izan dute.
- Esan beharra dago programa honi esker lagundutako jarduerak lehentasunezko zonaldeetan garatu diren **berroneratze- eta suspertze-ekintzen multzo zabalago baten barne** daudela. Ekintza horietan hainbat erakunderen esku-hartzea egon da, hala nola, Eusko Jaurlaritza, udalak, hiria Birgaitzeko Hirigintza-Sozietateak eta bestelako eragileak, eta askotariko jarduerak hartu dituzte barne aipatutako zonaldeetan: eraikuntzak, hirigintza, desjabetzeak, eraispinak, lurzoru-erosketak edo aldi baterako ordezkio bizitokiak ematea. Honela, **garatutako jardueren guztizko irismen ekonomikoa 41,7 milioi eurokoa eta 1.625 etxebizitzakoa izan da.**

Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 Renove Plana (Laguntzak)	
Birgaitzea (€)	7.339.649
 596 etxebizitza	

2013-2016 aldiko bestelako berroneratze- eta suspertze-jarduerak	
Eraispinak (€)	1.450.000
Lurzoru-erosketak (€)	956.000
Hirigintza (€)	9.324.000
Aldi baterako ordezkio bizitokia ematea (€)	1.376.000
Desjabetzeak (€)	7.900.000
Eraikuntzak (€)	13.400.000
 1.029 etxebizitza	

GUZTIRA 2013-2016 (€)	41.745.649	 1.625 etxebizitza
------------------------------	-------------------	--



TXABARRI – EL SOL EREMUA (SESTAO)

- Jarduera honen xedea izan da udalerriko beheko eremua berreskuratzea, zehazki Txabarri-El Sol birgaitze integratuko eremua (UE1 - Egikaritze Unitatea). Zonalde honetan burutu den esku-hartzearen oinarritzko helburuak izan dira **auzoan babes ofizialeko etxebizitza gehiago izatea eta hiri-bilbea eta zerbitzuak**

hobetzea. Jarduerak Sestao Berri sozietate publikoaren bidez egikaritu dira (Eusko Jaurlaritza eta Sestaoko Udala).

- 2013-2016 aldian zehar burututako lanek barne hartu dute, alde batetik, Abenduaren 25 kaleko 18. zenbakian zegoen eraikinaren eraispena **44 etxebizitza sozial berri** eraikitzeko. Etxebizitza berriak egikaritu ondoren, prozesu bat jarri da martxan antolamenduz kanpoko eraikinetako bizilagunak Txabarri El Soleko etxebizitza berrietara eramateko, eraikin horiek birgaitu edo, kasuaren arabera, berri batekin ordezkatu ahal izateko. Modu honetan gauzatu da Carranza eta Orixe 6 kaleetako eraikinen eraispena eta, horri esker, auzoko irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzen duten hirigintza-obrak burutu ahal izan dira.
- Birgaitzearen alorrean, **25., 27., 29. eta 31. zenbakietako eraikinetan birgaitze integrala egiten ari da, 47 etxebizitzako proiektu batekin**, horietatik 33 "A" energia-ziurtagiria duten babes ofizialeko etxebizitzak izanik. Bestalde, **Abenduaren 25 kaleko 20. zenbakia** birgaitzen ari da, Sestaoko Udalarekin eta jabeen erkidegoarekin lankidetzan, **18 etxebizitza birgaitzeko**.
- Hasierako fase hau amaitzeko, berregite-lanak burutu dira 33. eta 35. zenbakietan, Txabarri El Solen **18 babes ofizialeko etxebizitza** eraiki ahal izateko.



SARRATU EREMUA (BASAURI)

- Sarratu Eremuan burututako jardueren helburua izan da **zonalde honen hiri-eraldaketa, eraikuntzaren, birgaitzearen eta berroneratzearen bidez, energia-eraginkortasuna eta alokairurako etxebizitza sozialak sustatuz**. Horretarako, antolamendu-proiektu bat diseinatu zen une hartan zegoen eraikuntzaren ordezkapen integralerako, hirigintza erabat berritzeko (HHS, bidegorria eta bide-eraztuna), auzo berria trenbidearekin integratzeko eta une hartan zegoen ikastetxea zabaltzeko (Ikastola).

- Eusko Jaurlaritzak bultzatutako, Bidebi- Basaurik kudeatutako eta VISESA sozietate publikoak sustatutako auzoa gaztetzeko plan honen ondorioz **150 etxebizitza berri lortu dira lehenengo fasean (2013-2016)**, bi bloketan banatuak: bloke bat babes ofizialeko 60 etxebizitzarekin eta beste bat Alokabide sozietateak kudeatuko dituen alokairu sozialerako 90 pisurekin. Lehenengo blokeak 3 atari ditu eta 2-3 logelako etxebizitzak, garaje eta trastelekuaz gain, eta bigarren blokeak 1-3 logela bitarteko etxebizitzak ditu, desgaitasuna duten pertsonentzat egokitutako 4 etxebizitzaz gain.
- **Bigarren fasean (2017-2018)** gaztetze-planak beste 2 blokeren eraikuntza aurreikusten du, **130 etxebizitza berriekin**. Etxebizitza horien erdia alokairu sozialerako erabiliko da eta beste erdia babes ofizialeko etxebizitzetarako.



PEÑASCAL EREMUA – ITURRIGORRI-GARDEAZABAL (BILBO)

- Eremu honen hiri-berroneratzea **etxebizitza sozial berrien eraikuntza-proiektu** batean oinarritu da Iturrigorri eta Gardeazabal auzoetarako, krisi ekonomikoa bortizki jasan duten auzoak suspertzen laguntzeko. Jarduera hauek **Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren eta Bilboko Udalaren** lankidetzaz esparru baten barruan garatu dira.
- Proiektuak barne du, guztira, **83 etxebizitza sozial berrien** eraikuntza, 2 fasetan zehar. Lehenengo fasean (2013-2016) eraiki diren 38 etxebizitza sozial berriak gaur egun baldintza "ez egokietan" bizi diren bizilagunen bizitokia izango dira aurrerantzean. Bigarren faseari dagokionez (2015-2017), dagoeneko abian dira zonalde berean beste 45 etxebizitza sozial eraikitze obrak.



MARIAREN BIHOTZA PLAZAREN EREMUA (BILBO)

- Mariaren Bihotza Plazaren Eremuaren berroneratzearen barne, hainbat jarduera burutu dira **birgaitze eraginkorra, Mariaren Bihotza etxebizitza-multzoaren irisgarritasunaren hobekuntza** (1957. urtean eraikitako 111 etxebizitza) **eta plaza beraren hirigintza** gauzatze aldera. Bilboko Udal Etxebizitzak eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren arteko jarduera erkidea izan da hau.
- **111 etxebizitzen** birgaitze-lanen bidez hobetu egin dira eraikinen inguratzailerak termikoa eta beren instalazioak, **C energia-ziurtagiria** lortu arte, bai eta irisgarritasun unibertsala etxebizitza guztietara **8 igogailuren instalazioari** esker.
- Burututako lehen lanak izan ziren teilatua eta teilatuaren barne-isolamendua aldatzea. Ondoren, barnealdeko patioetan egiturak ipini ziren eskailera berrien babes gisa eta hainbat elementuren saneamendua burutu zen isolamendu termikoko sistema jarri ahal izateko. Aldi berean, pixkanaka ordeztuz joan ziren arotzeriak, eraikuntza osoaren azala berrituz joan zen material isolatzaile desberdinekin eta kanpoaldeko instalazio erkideak berrantolatatu ziren. Azkenik, galdarak eta eguzki-kita instalatu ziren etxebizitzaren barnealdean eta kanpoaldeko igogailuak konektatu eta martxan jarri ziren.
- Plazaren hirigintza-obren helburua izan da **plaza auzoaren komunitate-bizitzaren bihotza izan dadin lortzea**, jarduera gogaikarriak eta herritarren bizikidetzarekin bateragarriak ez diren jarduerak burutzea ahalbidetzen zuten espazio ezkutuak saihestuz. Honela, plaza berria erabat oinezkoena da, ez dago eskailerarik ez eta oztoporik lokal eta atarrietara iristeko eta 1.000 m² inguruko zonalde zentral bat du hainbat ekimen burutu ahal izateko.



SAN JUAN EREMUA (SANTURTZI)

- San Juan Eremuan egindako jarduerak **auzo horren hobekuntza integralerako** plan baten parte dira. Plan horrek barne ditu, guztira, **180 babes ofizialeko etxebizitza berri** eta 20.000 m²-tik gorako zonalde berde berri bat mazelaren beheko partean, orain arte infraerabilia zegoen gunera onura ateratzeko.

- Lehenengo fasean (2013-2016) **24 etxebizitza sozial egikaritu dira alokairurako eta ordezko bizitokia emateko** eta hirigintza-obra kontratatu dira. Etxebizitza berri hauek barne dituzte eguzki-panelak eta fatxadaren portaera termiko eta akustikoa hobetzeko neurriak, zubi termikoak ("fatxada aireztatua") kentzeaz gain. Bigarren faserako (2017-2020) **aurreikusi da alokairurako 60 zuzkidura-bizitokidun eraikin baten eraikuntza**, energia aurrezteko irizpideak jarraituz (eguzki-energiaren ekarpena, zoru erradiatzailea, kalefakzio zentralizatua eta aireztatze gurutzatua).



- Eraikuntza-jarduerekin batera burutuko dira, 2017-2020 aldian zehar, **garai batean bertako bizilagunek eskatu zituzten zonaldearen hirigintza-lanak**. Horri esker **elkarte eta bestelako kolektiboen bileretarako lokal bat gaituko da, ataripe-zonalde bat sortuko da eta eliza bertan kokatuko da. Halaber, igogailu bat instalatuko da behin betiko auzoko goiko partearen eta beheko partearen arteko lotura bat ezarriz** eta orain arte elkarri bizkarra emanda bizi izan diren 2 zonalde hauen arteko komunikazioa ahalbidetuz. Proiektua idazte-fasean dago.
- Bestalde, **Visesa sozietate publikoak beste 96 babes ofizialeko etxebizitza berri** eraikitzea aurreikusi da. Etxebizitza horietatik, **32 alokairu sozialerako erabiliko dira eta Alokabide sozietateak kudeatuko ditu** 2017-2020 aldian zehar. Visesak (Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, sozietate publikoa) dagoeneko eskatu dio Udalari 32 etxebizitza izango dituen lehenengo eraikina egikaritzeko lizentzia. Eraikina guztira 96 pisu izango dituzten 3 eraikineko multzo baten parte izango da (32 pisu eraikin bakoitzean).

TXOMIN-ENEA EREMUA (DONOSTIA)

- Txomin-Enea Eremuaren berroneratze-jarduerak **Txomin-Enea auzo berria sortzeko erakundeen arteko lankidetzaproiektu baten** esparru barnean daude, babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko eta zonalde honetako hirigintza-berroneratzea bultzatzeko helburuekin. Proiektu orokorrak barne du, alde batetik, **babes ofizialeko 950 etxebizitzaren** eraikuntza, horietatik 106 ordezko bizitokia emateko erabiliko direnak. Bestalde, obra-multzo bat aurreikusi da auzoan uholdeak ekiditeko eta, horretarako, **auzoaren altuera 3,5 metrotan areagotuko da** eta oztopo hidraulikoak kenduko dira, esaterako, zubia.

- Jarduera-esparru honen barne, **Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak bi lurzati erostea onartu du babes ofizialeko 262 etxebizitza eraikitzeko**. Etxebizitza horiek honela banatuko dira: 116 etxebizitza indarrean dagoen Plan Bereziaren "a.300.1" lurzatian, sestra-gaineko 9.900 m²(t)-ko bizitoki-eraikigarritasunarekin, 728 m²(t)-ko eraikigarritasun komertzialarekin eta sestra-azpiko 7.131 m²(t)-ko eraikigarritasunarekin garajeak eta/edo trastelekuak egiteko; eta 146 etxebizitza indarrean dagoen Plan Bereziaren "a.300.2" lurzatian, sestra-gaineko 12.450 m²(t)-ko bizitoki-eraikigarritasunarekin, 994 m²(t)-ko eraikigarritasun komertzialarekin eta sestra-azpiko 9.852 m²(t)-ko eraikigarritasunarekin garajeak eta/edo trastelekuak egiteko. Obra hauek Visesaren bidez (Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, sozietate publikoa) egikarituko dira.
- Halaber, Eusko Jaurlaritzak **kontzesio bat egin dio Donostiako Udalari** gutxienez ere 50 urtetan zehar eta errenta jakin batekin **alokairurako erabiliko diren babes ofizialeko 162 etxebizitza eraikitzeko**.



MOGEL EREMUA – IPURUA (EIBAR)

- Proiektu hau planteatzean ezarri zen xedea Mogel auzoaren birgaitze integrala izan zen, auzoko **bizitoki-eraikinen irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna hobetuz**. Proiektua **ZenN "Nearly Zero energy Neighborhoods"** energia-eraginkortasunerako Europako Programaren barne garatu da eta bertan parte hartu dute Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, Debegesa Eskualdeko Garapenerako Agentziak, Eibarko Udalak eta Tecnaliak.
- Aurreikusitako berroneratze-lanei esker igogailuak instalatu dira eraikinetan, fatxadak eta teilatuak birgaitu dira eraikinen isolamendu termikoa hobetze aldera eta eguzki-plakak instalatu dira, metagailu zentral batekin, etxeetako ur berorako, hartara eraikinen energia-eraginkortasuna nabarmen hobetuz.
- Lehenengo fasean zehar, 2013ko ekainaren eta 2014ko abenduaren artean, **birgaitze-lanak burutu dira 15 ataritan, 150 etxebizitzaren mesedetarako**. Bigarren faseko (2015-2018) **obrak abian dira gainerako 5 atarietan, beste 50 etxebizitzaren mesedetarako**.



MAKATZENA EREMUA (ARRASATE)

- Makatzena auzoan **bitoki-erakinen birgaitze energetikorako** plan bat garatu da, 1980. urtea baino lehen eraikitako etxebizitza-erakin multzo bat erabat eraberritzeko xedearekin. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak egikaritu ditu jarduera hauek Suradesaren (Debagoieneko Birgaitze Sozietatea) bitartez.
- Planak barne hartu ditu eraikinen isolamendua, hezetasun-arazoak konpontze aldera, eta barnealdeko eta kanpoaldeko irisgarritasunaren hobekuntza, igogailuak eta maldak ipiniz. Jarduera hauei esker **120 etxebizitzak**, Makatzena osatzen duten 17 etxebizitza-blokeetako 8 blokek alegia, **C energia-ziurtagiri lortu dute, kontsumoak kontrolatzeko monitorizazio-sistema izateaz gain**. Halaber, auzoko eta etxebizitzetara iristeko **arkitektura-oztopoak kendu dira**.



SANTA JULIANA EREMUA – ABANTO (PORTUGALETE)

- Santa Juliana eremuaren hiri-berroneratzea lortzeko hainbat **birgaitze integraleko jarduera burutu dira antolamenduz kanpoko eta errepide-eskubideen eraginpean dagoen auzo horretan**. Auzoa oso kaltetua zegoen, zenbait etxebizitza oso egoera txarrean zeuden eta hirigintza-narriadura eta narriadura soziala areagotzen ari ziren. Erortzeaz zeuden etxebizitza horiek eta kolektibo jakinek bitokia bertan ezarri izanak auzokoen kezka piztu zituen.
- Jardueren abiapuntua **Portugaleteko Udalaren Hirigintza eta Gizarte Ekintza Sailak burututako azterketa soziourbanistikoa** izan zen. Eraitzak Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politika Sailari helarazi zitzaizkion proiektu hau elkarrekin garatzeko eta berroneratze-lanak abian jartzeko helburuarekin.

- **2016an zehar**, hutsik edo erortzeaz zeuden **17 etxebizitza eraitsi dira auzoaren berroneratze-prozesuari hasiera emateko**. Prozesu hori datozen urteetan zehar osatuko da, **guztira 70 etxebizitza** birgaitzera iritsi arte.
- Prozesuak barne du, halaber, **Plan Orokorren aldaketa** bat, hurrengo urteotan bizitoki-eraikin berriak egiteko aukera kontuan hartzeko.



SAN JOAN ERREKA-NERBIOI IBAIA (LAUDIO)

- Hasiera batean eremu honetarako aurreikusitako jarduerak **Nerbioi ibaiarekin lotutakoak dira soilik**, 2015-2021 Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren arabera, baina **ibaierantz kokatutako eraikinei eragin gabe**. San Joan errekaaren hobekuntza hidraulikorako diseinatutako egitura-neurrien plangintza 2027. urtera bitartean ezarri da.

SAN JOSE AUZOA (AMURRIO)

- San Jose auzoaren berroneratzearen ardatz nagusia izan da, **guztira, 80 etxebizitzaren birgaitze eraginkorra**, zonalde honen hirigintza- eta gizarte-suspertzean laguntzeko xedearekin. Hasierako fasean (2013-2016) 5 ataritako 2 eraikinetan kokatutako 50 etxebizitzaren birgaitze-lanak abian jarri dira, eta hurrengo faserako utzi dira (2016-2018) 3 atariko eraikin batean kokatutako beste 30 etxebizitzaren birgaitzea.

OSINTXU AUZOA (BERGARA)

- Osintxu auzoan aurreikusitako berroneratze-jarduerak atzeratu egin dira eta plangintza berria egin behar izan da **2017-2020 aldirian** zehar garatzeko.

3.2- Helburu kualitatiboen betetze-mailaren ebaluazioa

Ebaluazio-metodologia


- Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 Renove Planaren helburu kualitatiboen betetze-maila ebaluatzeko **Plan horretan parte hartu duten eragile nagusiei zuzendutako galdetegi bat** erabili da, 4 kategoria nagusiren arabera:
 - Eusko Jaurlaritza eta haren sozietate publikoak.
 - Birgaitze udal/eskualdeko sozietateak.
 - Birgaitze-eskaintzarekin lotutako eragileak: enpresa sustatzaileak eta eraikuntza-enpresak, elkarte eta kidego profesionalak, jabetza higiezin agentek, etab.
 - Birgaitze-eskariarekin lotutako eragileak: erabiltzaile-elkarteak, finka-administratzaileak, etab.
- **Galdetegiaren edukiaren** xedea zen **Planaren helburu estrategikoen, jarduteko printzipioen eta laguntza-programen** betetze-maila ikuspuntu kualitatibotik ebaluatzea. Halaber, 2017-2020 aldira begira, antzemandako hobekuntza-alderdiak aipatzea eskatu zen.

ERANTZUNA ETA PARTE HARTZEA

Galdetegia apirilean bidali zitzairen 55 eragileri eta 31 erantzun jaso ziren, eskuineko grafikoan ageri den banaketarekin.

Zehaztu beharra dago 55 eragile horietako zenbait, kidego profesionalak kasu, bitartekaritza-agente gisa aritu direla, galdetegia elkargokideei edo elkartekideei helaraziz.

Aurrekoa kontuan hartuta, erantzunaren masa kritikoa ez da nahikoa izan eragile mota bakoitzeko analisi segmentatu bat egiteko.




Ebaluazioaren emaitza nagusiak

- **Helburu estrategikoei** dagokienez, eragileek bereziki ongi baloratu dute Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 Renove Planak **eraikuntzaren merkatua dinamizatze**ko eta **energia-kontsumoa eta CO₂ isurketak murrizte**ko eman duen laguntza.
- Bestalde, uste da ere Planak enplegu-sorrera, bizi-kalitatearen hobekuntza eta gizarte-kohesioa bultzatu dituela eta esku-hartze integraletan oinarritutako birgaitzea sustatu duela.
- Hirigintza-kultura berri baten sustapena identifikatu da garatzen jarraitu beharreko helburu gisa.

Planaren HELBURU ESTRATEGIKOEN betetze-mailaren batez besteko balorazioa (Helburu bakoitzaren batez besteko balorazioa 1-Ezer ere ez eta 4-Asko eskala batean)



Planaren JARDUTEKO PRINTZIOIEN betetze-mailaren batez besteko balorazioa (Printzipio bakoitzaren batez besteko balorazioa 1-Ezer ere ez eta 4-Asko eskala batean)




- Eragileek positiboki baloratu dute **Administrazioaren funtzio sustatzailea eta erakundeen arteko lankidetzak**, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko onuragarria den jarduera sozial eta ekonomikoa suspertze aldera.
- Halaber, **jasangarritasunaren alorrean egindako ekarpena** nabarmendu da, eraikinen energia-eraginkortasunaren hobekuntzaren bitartez.
- Bestalde, hiri-birgaitze politikaren eta programen kudeaketa eraginkorra eta efizientea bermatzeko ahaleginak egiten jarraitu behar dela uste da.

- Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 Renove Planaren programen ikuspuntutik, **eragileek bereziki ongi baloratu dute partikularrentzako eta jabekideen erkidegoentzako laguntza-programa eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko.**
- Ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko laguntzak positiboki baloratu dituzte ere eragileek.
- Hiria zaharberritzeko diru-laguntzen programa izan da balorazio baxuena jaso duena.

PROGRAMEK eraikinen eta etxebizitzaren birgaitze eraginkorrerako izan duten ekarpenaren batez besteko balorazioa

(Programa bakoitzaren batez besteko balorazioa 1-Ezer ere ez eta 4-Asko eskala batean)



Eragileek agerian jarritako alderdi gehigarriak

- Herritarrei erakundeen aldetik helarazitako informazio-defizita.
- Baliabideen (diru-laguntzen) zenbatekoa eta finantziario-baldintzak (mailegu kualifikatuak) berrikusi, areagotu eta malgutzeko beharra.
- Birgaitze integraleko eremuetako eta hiri-berroneratze proiektuetako jarduerak garatzeko beharra. Hirigune historikoei tratamendu berezia ematea eskatu da.
- Hirigintza-kultura naturaren babesaren ikuspuntutik garatzeko beharra.
- Eraikinetan esku-hartze partzialak burutzeko laguntzak eskatu dira eta jarduera integralen aurrekontuaren zati bat jarduera partzialetarako erabiltzea proposatu da.



Hobekuntza-alorrak etorkizunera begira



- Indarrean dagoen birgaitzeari buruzko araudia bateratzea.
- Herritarrei eta sektoreko profesionaleri zuzendutako informazio-kanpaina bat martxan jartzea, birgaitzeak burutzeko gidaliburu baten eta aholkularitza tekniko baten diseinua barne hartuta.
- Herri administrazioen arteko benetako lankidetzara gehiago, estatuko eta autonomia erkidegoko laguntzak koordinatuz eta bestelako laguntza-planekin bat etorritz (Energiaren Euskal Erakundearen Leihoen Renove Plana).
- Baliabide ekonomikoen zuzkidura-bolumena areagotzea.
- Eraikinen Ikuskapen Teknikoak (EIT) zerikusia duten eragileen kudeaketa-gaitasunaren arabera garatzea (udalak, teknikariak, Birgaitzeko Hirigintza-Sozietateak eta jabekideen erkidegoak).
- Bizilagunen elkarten irisgarritasuna lehentasunezko alortzat jotzea birgaitze integraleko prozesuetan.

4- 2017-2020 aldirako gidalerroak

2017-2020 aldirako gidalerroak

Alde batetik birgaitze-beharrak eta bestetik 2013-2016 aldian zehar garatutako jardueren ebaluazioaren ondorioak kontuan harturik, ondorengo jardueragidalerroak proposatzen dira 2017-2020 aldirako, 3 jarduera-ildotan banatuak:

ILDOA	GIDALERROAK
A. JARDUEREI LEHENTASUNA EMATEA ETA SUSTAPENA ETA LAGUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ A.1. Diruz lagun daitezkeen jarduerak eraikin zaharrenetan kontzentratzea ▪ A.2. Irisgarritasun unibertsalarekin eta energia-eraginkortasunarekin lotutako jardueren lehentasuna areagotzea ▪ A.3. Birgaitze babestuan etxebizitza-mota berriak barne hartzea ▪ A.4. Birgaitze Integratuko Eremuen eta Bizitoki Eremu Narriatuen eguneraketa ▪ A.5. Finantzazio-bide berriak birgaitze-laguntzen osagarri gisa ▪ A.6 Birgaitzeen zerga-tratamendu hobea sustatzea
B. BERRIKUNTZA ETA INPAKTU EKONOMIKO ETA SOZIALA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ B.1. I+G+b-rako laguntzak Birgaitze eta hiri-berroneratze lanak sektorearen lehiakortasuna hobetzeko esperimentazio-plataforma gisa ▪ B.2. Birgaitzeekin lotutako ekonomia zirkularra garatzea ▪ B.3. Lotura handiagoa hiri-berroneratze prozesuen eta suspertze sozioekonomikorako prozesuen artean
C. KUDEAKETA ETA GOBERNAMENDUA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ C.1. Leihatila bakarra birgaitze-lanetarako ▪ C.2. Gizarte-sentsibilizazioa eta herritarrei zuzendutako informazioa birgaitzeak eskaintzen dituen abantaila eta aukeren inguruan ▪ C.3. Lankidetzatoki-mailan ▪ C.4. Eragileen arteko lankidetzat ▪ C.5. VISESA birgaitzeetarako eragile publiko gisa barne hartzea ▪ C.6. Herritarrek eta eragileek ebaluazioan eta birgaitze-politikaren definizioan izan duten parte-hartzearekin jarraitzea ▪ C.7. Birgaitze-politikaren eta -jardueren ebaluazio-lanak areagotzea

A.1

Diruz lagun daitezkeen jarduerak eraikin zaharretan kontzentratzea

- Birgaitze-kultura handiago bat sustatzearen eta baliabide publiko mugatuak modu eraginkorrean erabiltzeko behararen ildotik, beharrezkotzat jotzen da **laguntza publikoak, orokorrean, eraikin zaharrenak birgaitzeko erabiltzea**.
- Hala ere, irizpide orokor honek aintzat hartu behar ditu **errealitate espezifikoak, horiek ere lehentasuna jaso beharko baitute**, esaterako:
 - Egonkortasuna eta segurtasuna arriskuan jartzen duten kalte larriak dituzten etxebizitzak eta eraikinak.
 - Oztopo-arkitektonikoak kentzeko jarduerak, adineko pertsonak edo desgaitasunen bat duten pertsonak daudenean, betiere irisgarritasun unibertsalaren helburuari lehentasuna emanaz.

A.2

Irisgarritasun unibertsalarekin eta energia-eraginkortasunarekin lotutako jardueren lehentasuna areagotzea

- Eraikinen segurtasunarekin lotutako egitura-elementuak hobetzeko xedea duten esku-hartzeei eman beharreko lehentasun logikoaz gain, **irisgarritasun unibertsalarekin eta energia-eraginkortasunarekin lotutako jardueri ere lehentasuna** ematearen aldeko apustua egin nahi da.
- Hiri-irisgarritasunari dagokionez, **desgaitasun fisikoren bat duten pertsonen** errealitatea eta eskubideak kontuan hartzeaz gain, **euskal biztanleriaren zahartze progresiboaren** ondorioak ere aintzat hartu behar dira. Biztanleria zahartuago baten errealitate berri horrek zalantzarik gabe eragina izango du gizarte-dinamikengan eta, zehazki, bizitoki-dinamikengan. "Bizitokiaren bizi-zikloaren" moduko errealitateak garrantzitsuagoak eta agerikoagoak izango dira eta, testuinguru horretan, irisgarritasuna elementu nagusia da, bereziki bizitzaren azkeneko etapetan.
- Energia-eraginkortasunari dagokionez, "Eraikinen energia-eraginkortasunaren gaineko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/UE Zuzentarauan (testu bategina)" ezarritakoari jarraituz, birgaitze-jardueren helburua zuzendu beharko litzateke **"ia energia-kontsumorik ez duten eraikinak" lortzerantz**, hau da, energia-eraginkortasun oso handia duten eraikinak non beharrezko energia-kantitate eskasa edo oso eskasa, neurri handi batean, iturri berriztagarrietatik eratorritako energiarekin asebetetzen den, eraikinean bertan edo ingurunean sortutako iturri berriztagarriak barne.

A.3

Birgaitze babestuan etxebizitza-mota berriak barne hartzea

- **Alokairu publikoaren eskaintza zabaltze aldera, birgaitze babestuan errealitate berriak sartzea** izango litzateke helburu nagusia. Hartara, erantzuna emango zaio etxebizitzaren eskari sozial berriari.
- Horretarako, honakoa proposatzen da: **birgaitzea burutu ondoren beren etxebizitza**, Bizigune edo ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) programen bidez, **alokairu publikorako erabili nahi duten jabeei birgaitze-laguntzak ematea**.

A.4

Birgaitze Integratuko Eremuen eta Bizitoki Eremu Narriatuen eguneraketa

- **Birgaitze Integratuko Eremuen eta Bizitoki Eremu Narriatuen inbentarioa eguneratzea** beharrezkotzat jotzen da, eremu horien kalifikaziorako eta lehentasunak ezartzeko adierazle objektibo berriak sartu ahal izateko.
- Zentzu horretan, beren hirigintza-arkitektura ezaugarriak eta ezaugarri ekonomiko-sozialak eta narriadura-baldintzak direla eta lehentasunezko jarduerak behar dituzten bizitoki-multzoak definitzeko **gaur egun erabiltzen diren irizpideekin batera ondorengo alderdiak kontuan hartzea proposatzen da:**
 - Biztanleriaren errenta-maila.
 - Biztanleriaren zahartze-maila.
 - Langabezia- eta inaktibitate-tasa.
 - Hutsik dauden etxebizitza-tasa.
 - Erabilera tertziario edo komertzialetara zuzendutako lokalen okupazio ezaren tasa.
 - Indarrean dauden irisgarritasunaren (zonaldeari eta etxebizitzari dagokienez) eta energia-eraginkortasunaren inguruko araudiak betetzen ez dituen eremua izatea.
 - Ingurumenaren berroneratze-beharrarekin lotutako bestelako irizpideak.

A.5

Finantzazio-bide berriak birgaitze-laguntzen osagarri gisa

- Tradizionalki, finantza-erakundeek arrisku handiko gisa jotzen dituzten kolektiboetako etxebizitzak birgaitzeko mailegu pertsonalak emateko orduan eskariaren eta eskaintzaren arteko desoreka bat gertatzen da. Horrez gain, azken urteotan, egoera ekonomikoa dela eta, bankuak berregituraketa-prozesuan daude eta merkatuek, orokorrean, arrisku-abertsio handiagoa izaten dute.
- Bestalde, aurrekontu publikoek ere doikuntzak jasan dituzte azken ekitaldi hauetan, eta aurrekontu-egonkortasunerako helburuek zaildu egiten dituzte finantziario-falta arintzeko esku-hartze zuzenak.
- Horregatik, ezinbestekoa da **finantzazio-bide osagarrietan aurrera egitea, birgaitze-lanetarako zuzendutako finantzazio publikoaren bultzada biderkatu ahal izateko**. Helburu horrekin, finantza-erakundeen arteko lankidetzaren bide berriak garatu beharko dira, birgaitze-lanak burutzeko beharrezkoa den finantzazioa modu eraginkorrean eman ahal izateko xedearekin.
- Ildo horretatik, Eskualde Garapenerako Europako Funtsekin (EGEF) lotura duen **lankidetzaren publiko-pribaturako Finantza Instrumentu bat abian jartzeko** ahaleginak egiten ari dira. Halaber, bestelako bide osagarriak bilatu beharko dira, esaterako, birgaitze-proiektuen elkar-finantzaziorako mikrokreditu sozialak sustatzea, erakunde espezializatuen bitartez.

A.6

Birgaitzeen zerga-tratamendu hobea sustatzea

- Orain arte garatutako zenbait ekimenek, etxebizitzaren birgaitzearekin lotutako jardueren BEZa (Balio Erantsiaren Zerga) jaistearen kasu, eragin onuragarria izan dute, bai jarduera horiek sustatzeko orduan eta baita jarduera horiekin lotutako zerga-iruzurra murrizteko orduan ere.
- Birgaitzeek duten garrantzi ekonomikoa eta soziala kontuan hartuta, **zerga-abantaila berriak planteatu** litezke, hala nola, kenkariak PFEZan (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) edo jarduera hauekin lotutako tokiko zergen murrizketa, guzti hori **Foru Aldundiekin eta Udalekin lankidetzan**.

- Tradizionalki, eraikuntzaren sektorean berrikuntza eskasa izan den arren, azken urteotan **apustu garrantzitsua egiten ari da I+G+b-aren alde, bai erabilitako materialei eta ekipamenduei nahiz eraikuntza-teknikei dagokienez ere**, eta apustu hori eraikin eta etxebizitza berrietan eta birgaitutakoetan ere garatzen ari da.
- Ezin dezakegu ahaztu **lurralde-plangintzaren eta hiri-berroneratzearen alorra lehentasunezko gisa aintzatesten dela 2020 Euskadiko Espezializazio Adimentsuaren Estrategian (RIS 3). Gainera, birgaitzea barne hartzen dute Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planaren jarduera-ildoek**. Guzti horrek esan nahi du berrikuntza sektore honetan espezifikoki sustatu beharra dagoela, jarduera ekonomiko gisa eta enplegua sortzeko duen potentzialagatik.
- Xede honekin, Etxebizitzen RENOVE Estrategiaren ikuspuntutik, honako ildo osagarrietan aurrera egitea proposatzen da:
 - **ERAIKAL Programa indartzea** kalitatearen kudeaketa-sistemen ezarpena eta hobekuntza sustatzeko, jasangarritasuna bultzatzeko eta berrikuntza laguntzeko Euskadiko etxebizitza-eraikuntzaren sektoreko enpresetan.
 - **Eusko Jaurlaritzaren Eraikuntzaren Kalitatearen Kontrolerako Laborategiari onura handiena ateratzea**, eraikuntza-materialekin eta ZTBES sarearen (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea) barne dauden antzeko ekipamenduekin saiakuntza fisikoak, mekanikoak eta kimikoak burutzeko.
 - **Erosketa publiko berritzailearen** bidean aurrerapausoak ematea.
 - **Europako proiektuetan** modu aktiboan parte hartzea.

B.2

Birgaitzeekin lotutako ekonomia zirkularra garatzea

- "Ekonomia zirkularra" jasangarritasunarekin erlazioa duen kontzeptu ekonomikoa da eta ekonomia zirkularraren helburua da produktuen, materialen eta baliabideen balioa ahalik eta luzaroen ekonomian mantentzea, hondakinen sorrera ahalik eta gehien murrizten den aldi berean. Kontzeptu hau **ekonomia berri bat ezartzean datza, zirkularra –ez lineala–**, produktuen, zerbitzuen, hondakinen, materialen, uraren eta energiaren "bizi-zikoa ixtearen" printzipioa oinarri hartuta.
- Kontzeptu honekin estuki lotuta dago ere "**hurbileko ekonomiaren**" kontzeptua, ahal den guztietan ingurunean bertan sortutako sargaiak erabiltzea defendatzen duena, hartara garraioaren motako jarduerekin lotutako kostu ekonomikoak eta ekonomikoak ez direnak murriztuz.
- Kontzeptu hauen ildotik, 2017-2020 aldirako, ondorengo bideetan aurrera egitea proposatzen da:
 - Ahal denean, materialak **tokiko ekoizleei** erostea.
 - Materialak **berrerabiltzea**.
 - Berrerabil ezin daitezkeen materialen **klasifikazio- eta birziklatze-tasa** areagotzea.

B.3

Lotura handiagoa hiri-berroneratze prozesuen eta suspertze sozioekonomikorako prozesuen artean

- Hiri-berroneratze prozesuak garatzen diren eremu gehienek, gainera, gizarte-arazoak (langabezia, bizikidetzeta,...) eta arazo ekonomikoak (estrategiak birformulatzeko beharra duten negozio "zaharkituak", ekipamendu eta prozesuak modernizatzeko beharra,...) izaten dituzte.
- Gehiengo baten iritzia da eremu hauetan, jarduerak argi eta garbi eraginkorrak izateko eta bilatzen diren helburuak lortzeko, **jarduerak ikuspuntu integral batetik planteatu behar direla, hiri-espazioan, bizitoki-eraikinetan eta eraikin komertzialetan burututako esku-hartzeak bestelako suspertze sozioekonomikorako dinamikekin uztartuz eta egokituz**: enplegu-planak, hezkuntza-planak, bitartekaritza-prozesuak, etab. Beraz, hirien berroneratze- eta suspertze-prozesuen dimentsio fisikoaren eta sozioekonomikoaren lotura eta koordinazioa 2020. urtera begira eta haratago sustatu beharreko elementuetako bat da.

C.1

Leihatila bakarra birgaitze-lanetarako

- **Birgaitze-lanetarako laguntzen inguruko informazio eta izapideetarako "Leihatila bakarraren"** kontzeptuan aurrerapausoak ematea beharrezkoa da, herritarrek sistema horri onura atera ahal izateko.
- Behar hau **bereziki garrantzitsua da eremu espezifikoetako esku-hartzeen kasuan**, herritarrek behar duten informazioa puntu bakar batean aurki dezaten eta izapide guztiak eskaera bakar batekin egin ditzaten, esku-hartze babestuak administrazio desberdinen finantzazioarekin egingo badira ere.
- Kontzeptu honekin batera, "**sinplifikazio administratiboan**" eta "**elkarreragintasunean**" **aurrera egitea** beharrezkoa da ere, herritarrei dokumentuak eskatzea ekidinez dokumentu horiek dagoeneko Administrazioen eskuetan badaude, Administrazioa edozein izanda ere (erkidegokoa, foru-administrazioa edo tokikoa).

C.2

Gizarte-sentsibilizazioa eta herritarrei zuzendutako informazioa birgaitzeak eskaintzen dituen abantaila eta aukeren inguruan

- Birgaitze-arauen eta -programen zeharkako faktore gisa, ezinbestekoa da **etxebizitzaren mantentze- eta hobekuntza-kultura** sustatzen eta indartzen jarraitzea, batez ere, eraikinen elementu erkideen kasuan. Halaber, herritarrei jakinarazi behar zaizkie irisgarritasun unibertsalaren eta energia-eraginkortasunaren aldeko apustuak epe luzera dakartzan abantaila ekonomiko eta sozialak.
- Horretarako, hemen azaldutako moduko ekintzetan lan egin beharko da:
 - **Herritarrei zuzendutako informazio-kanpainak.**
 - Energia-eraginkortasunarekin lotutako esku-hartzeek dakartzaten **aurrezteen inpaktu kuantitatiboari** buruzko informazioa eskaintzea.
 - **Tokiko erakundeen eta finka-administratzaileen moduko bestelako eragileen arteko lankidetzaren** lortzea, hurbil egotearen abantaila baitute.

C.3

Lankidetza toki-mailan

- Ezinbestekoa da **erakundeen arteko lankidetza eta lankidetza publiko-pribatua hobetzen jarraitzea birgaitzeen alorrean**, informazio-fluxuei eta arlo honetan parte hartzen duten eragileen arteko lankidetzari onura handiena atera ahal izateko eta, hartara, dauden baliabideen kudeaketaren efizientzia areagotzeko.
- Koordinazio eta lankidetza horiek bereziki garrantzitsuak dira toki-mailan eta **bereziki arrakastatsuak izan dira hiria Birgaitzeko Hirigintza-Sozietateak dituzten udalerrien eta eskualdeen kasuetan**. Birgaitzea sustatzeko tresna hauek ezaguera abantailatsua dute beren tokiko errealitateari eta espazio fisikoaren nahiz esparru geografikoaren errealitate sozioekonomikoaren ezaugarriei dagokienez.
- Honelako birgaitze-tresna espezifikorik ez egotekotan, garrantzitsua da **udal erakundearen mailan eta/edo lurraldearen garapenarekin zerikusia duten bestelako eragileen artean lankidetza mantentzea**, hala nola, garapen sozioekonomikorako tokiko eta eskualdeko agentziak. Erakunde hauek, hirigintzaren alorrean espezializatuta ez badaude ere, esperientzia dute suspertze-prozesuen dinamizazioan.

C.4

Eragileen arteko lankidetza

- Badira **beste eragile asko birgaitze-prozesuetan parte hartzen dutenak**, esaterako, finka-administratzaileak, eraikuntza-agentzietak, birgaitze-enpresak, etab.
- Eragile guzti hauen parte-hartze koordinatuak berebiziko garrantzia dauka hirien birgaitze eta berroneratze politikaren eta proiektuen arrakastarako. Lankidetza horren emaitzak hobetze aldera, honako alorretan aurrera egitea proposatzen da:
 - **Jardunbide onak** aurkezteko jardunaldiak.
 - Eragileei zuzendutako **prestakuntza**.
 - **Informazio-kanal eraginkorrakoak** ezartzea, batez ere kanal telematikoak.
 - **Parte-hartzeko kanal eraginkorrakoak** ezartzea, eragileen iritziak eta ekarpenak jasotzeko xedearekin.

C.5

VIIESA birgaitzeetarako eragile publiko gisa barne hartzea

- Birgaitzeak etxebizitza berrien eraikuntzarekiko pisua irabazten jarraitu behar duen errealitate berri honetan, **VIIESAren potentzial tekniko eta operatiboari onura atera behar diogu, Euskadiko etxebizitza-politikaren laguntza-tresna gisa.**
- Horretarako **VIIESAren funtzioa indartzea proposatzen da, Birgaitze Eragile Publiko gisa** eta hirien birgaitze- eta berroneratze-jardueren arduradun gisa, bereziki Birgaitzeko Hirigintza-Sozietaterik ez duten lurralde-eremuetan.

C.6

Herritarrek eta eragileek ebaluazioan eta birgaitze-politikaren definizioan izan duten parte-hartzearekin jarraitzea

- Tradizionalki, Eusko Jaurlaritzatik, etxebizitza-politiketan parte hartzea sustatzeko estrategia aktibo bat garatu da, bai herritarren parte-hartzeari dagokionez eta baita alor honekin zerikusi zuzenagoa duten eragileen parte-hartzeari dagokionez ere.
- Hori lortzeko, ezinbestekoa da **birgaitzearen alorreko parte diren eragileei irekitako parte-hartze bideak sustatzen jarraitzea**, alde batetik, Etxebizitza Sailak prestatutako planteamenduak aberasteko eta, bestetik, burutzen diren ekimenetan sektorearen inplikazio-maila handiago bat lortzeko.
- Zentzu horretan, garrantzitsua da **parte-hartze mekanismo** egokiak hautatzea; parte-hartze zabala ahalbidetzen duten baliabide telematikoak behar bezala uztartuz identifikatutako arazoetan sakontzea eta irtenbide berrien elkarlaneko definizioak jorratzea ahalbidetzen duten izaera kualitatiboagoa duten dinamikekin.

- **"Kontu-ematearen"** printzipioaren arabera, politika eta esku-hartze publikoen ebaluazioa areagotzeko beharra funtsezko elementua da **"kudeaketa aurreratuaren"** eta **"gobernantza irekiaren"** printzipioak garatzeko eta Etxebizitza Sailak konpromiso irmoa du printzipio hauekin.
- Ondorioz, honako ildoetan lan egitea proposatzen da:
 - **Laguntzen esleipenaren eta aplikazioaren jarraipena** zabaltzea, laguntzen trazabilitate-kontrola areagotuz eta diruz lagundutako obrak egikaritzeko baldintzak ere aztertuz (segurtasuna, aseguruak, etab.).
 - **Energia-eraginkortasunaren alorreko helburuen betetze-mailaren analisi teknikoak** burutu eta gainbegiratzea, materialen eta soluzioen espezifikazio teknikoaren eta benetan horiekin burututako instalazioen arteko koherentzia egiaztatzeko.
 - Era berean, eta azken urteotan lantzen aritu garen gardentasunaren arloan aurrera egite aldera, **jarraipen- eta ebaluazio-jardueraren inguruko txostenak argitaratzea** proposatzen da, herritarrek ulertzeko moduko hizkuntza erabiliz.